

2007KO ABENDUAK 27

27 DE DICIEMBRE DE 2007

ORGANOA: UDAL BATZARRA

ORGANO: AYUNTAMIENTO PLENO

BATZARRALDIA: OHIZKOA

SESION: ORDINARIA

TOKIA: UDALETXEKO OSOKO BILKUREN ARETOA

LUGAR: SALON DE PLENOS DE LA CASA CONSISTORIAL

EGUNA: 2007KO ABENDUAK 27

DIA: 27 DE DICIEMBRE DE 2007

HASIERA ORDUA: 19:00

HORA DE COMIENZO: 19:00

LEHENDAKARIA: Iñaki AGIRREZABALAGA ALKORTA.

PRESIDE

ZINEGOTZIAK: BERTARATUTAKOAK

CONCEJALES: ASISTEN

Maria Eugenia ARRIZABALAGA OLAIZOLA
Lide AMILIBIA BERGARETXE
Unai MANZISIDOR ANDONEGI
Manuel ZUBIA ARTABE
Andoni ETXANIZ OSA
Miren Nerea EPELDE AZKUE
Joseba Josu AZPIAZU AZKARRAGA
Pilar ETXABE IRIONDO
Cristina FORCADA UNANUE.
Xabier OLAIZOLA ANTIA
Emiliano CABAÑAS GONZALEZ
Paloma HEREDERO NEGREDO

EZ DIRENAK BERTARATU:

NO ASISTEN:

IDAZKARIA: Miren ETXEZARRETA GARMENDIA
SECRETARIO

Herritarrak agertu dira.

Asiste público.

Alkate jaunak bilera eratutzat
ematen du.

Se da por constituida la
sesión por el Alcalde-Presidente.

1.- AURREKO BILERETAKO AKTEN ONARPENA, BIDEZKO
BADA:2007.10.25 eta 2007.11.29

**APROBACION DE LAS ACTAS DE LAS SESIONES ANTERIORES, SI
PROCEDE: del 25.10.2007 y 29-11-2007.**

ALKATE-LEHENDAKARIA: Arratsaldeon denori. Abenduak 27ko, plenoari hasiera eman diogu. Beti bezala, aurreko bilerako aktaren onarpenarekin hasiko gara, bidezko baldin bada.

Hemen bi gauza aipatu nahiko nituzke: alde batetik, aktak nola jasoko diren; erabaki dugu, pleno honek kontrakorik esaten ez badu behintzat, aktak jasotzea aurrekoan jaso ziren bezalaxe. Lan haundia eskatzen du horrek, baino badakigu eta Palomak egindako interbentzioen ondorioz, “Diario de Sesiones” eta aktaren inguruko bereizketa dela eta ez dela, badakigu berez horrela izan beharko lukeela, baina beste eredu batzuk jarraitu ditugu, adibidez, Gipuzkoako udaletxe nagusienak jarraitzen duten eredia, bai Donostiak, bai Tolosak eta abarrek jasotzen duten eredia eta da hain zuzen ere guk aurkeztu dugun eredu hau, eta pentsatzen dugu eredu hau izango litzatekeela egokiena akta bezala onartzeko.

Izan ere Akta eta “Diario de Sesiones”-en arteko ezberdinketa egingo bagenu, horrek lan bikoitza eskatuko luke eta udaletxe hau dakigun bezala, lan bikoitzak egiteko ez dauka nahiko pertsonal.

Hori alde batetik, eta beste alde batetik Ezker Batua-Aralarren idatzi bat dugu esanez, - bozeramaileen batzordean ere aipatu dugu - bozketetan Aralar eta Ezker Batua bezala formulatzeko galdera eta horrela egingo dugu. Dagoeneko diru partiketetan ere, nahiz eta talde bat bezala izan, bi alderdi político ezberdin bezala kontsideratzen direlako. Hau behin aipatuta, ez dakit aktaren inguruan norbaitek zerbait esan nahi duen edo esan dudanaren inguruan zerbait esan nahi duen.

IDAZKARIA: Iñaki, nik ere nahiko nuke aurreko plenoaren inguruan, eskatu zenidaten idazkaritzako txostenaren kontu eman. Aurreko plenoan zintzilik gelditu zen gai bat izan zen eta horri buruz, plenoari aukezten diodan txostena irakurri nahiko nuke eta aurretik baita ere, gogoetatxo batzuk idatzi ditut eta iruditzen zait komenigarria dela, horiek ere aipatzea, gero erderaz egingo dut:

Hilabete honetan betetzen ditut 16 urte, Zumaiako Udaletxeko behin behingo Idazkari karguaren egikaritzan.

16 urte hauetan gora behera asko ezagutu ditudan arren, orain artean ez dut, Udal Batzaren aurrean horrelako azalpenik egiteko beharrik sentitu. Baina aurreko Plenoan, Idazkariaren profesionaltasunaren aurka ustegabeko, etengabeko eta zuzeneko erasoaren aurrean zenbait aipamen egitea bidezko iruditzen zait.

1.- Idazkariaren eginkizunak –fede publikoa eta aholkularitza juridikoa- profesionaltasunez bete ditut eta profesionaltasun horrek inplizitoki daraman inpartzialtasunaz. Eta erantsiko dut dedikazio osoz.

Ohikoa eta ezaguna dugu Pleno honetan, inpartzialtasun ezaren zantzuak aireratu eta jendaurrean adieraztea, iritzi juridikoa, talde politiko batek sustatu nahi duenaren aurka doanean, baina ez erreprotxe profesional eta pertsonalen mailaraino iritsiaz, inongo oinarririk gabe. Edozein kritika argudio batzuetan oinarrituta egon behar du eta are gehiago langile baten profesionaltasuna zalantzan jartzen denean.

Askotan argitu izan den bezala, berriz azaltzera noa: lan postu honetan aritzeko izendapena, publizitate, konkurrentzi eta gaitasun printzioetan oinarrituriko hautaketa prozesu bat gainditu ondoren izan zen.

Dedikazio osoz diodanean funtzio hauek betetzeko, zenbaitetan jaiegunetan, oporraldietan edo bizitza pribatuaren gainetik jarriaz bete ditudala esan nahi dut, inongo zailtasunik jarri gabe eta lehentasuna profesionaltasunari emanaz.

2.- Aktaren idazketari buruz, beti sortu izan dituzten arazoak kontuan izanda eta zinegotzien interbentzioak halik eta fidelenik jaso nahian, beste udaletxe batzuetako ereduak jaso eta erabili ditudala, Donostia, Tolosa, ... (web orritik jasotako informazioa).

3.- Aurreko Plenoan eztabaidatu eta bozkatu ondoren baztertutako mozioa berriro hurrengo Plenoko Gai Ordenean sartzeari buruzko legezketasunaren txostena jarraian irakurriko dut eta banatuko zaizue.

4.- Gobernu Batzordetako akten banaketa, eta zinegotzi kredentzialari buruzko gaiak, besteak beste, plenez kanpoko irtenbidea izan dute eta izango dute aurrerantzean ere, bidezko den moduan.

5.- Profesionaltasun osoz aurrera eramaniko nire lanak inolako kalterik sortu badu, barkamena eskatzea besterik ez zait geratzen.

Eta orain erderaz irakurriko dut, nahi baduzu, eta gero txostena irakurriko dut euskaraz eta erderaz dago.

Este mes cumpló 16 años en el ejercicio del cargo de secretaria interina del ayuntamiento de zumaia.

En el transcurso de estos 16 años, aunque haya conocido todo tipo de vicisitudes no he sentido la necesidad de dar explicaciones ante el Pleno de la Corporación. Pero en vista de que en el Pleno anterior se realizaron alusiones inesperadas, continuas y directas contra la profesionalidad de la Secretaria, considero procedente mencionar lo siguiente.

1.- Las funciones atribuidas a Secretaría, -la fe pública y el asesoramiento legal preceptivo – las he desempeñado con absoluta profesionalidad y con la imparcialidad que ello conlleva. Y añado con dedicación total.

Es habitual y conocido en este Pleno exponer en público y airear indicios de falta de imparcialidad cuando la opinión jurídica va en contra de lo que promueve un determinado grupo político; pero no hasta el extremo de los reproches profesionales y personales sin fundamento alguno. Toda crítica debe estar sustentada en argumentos y más si se pone en entre dicho la profesionalidad de un trabajador.

Reitero lo que ya en repetidas ocasiones se ha aclarado con anterioridad: el nombramiento para el ejercicio de este cargo se me otorga tras superar un proceso selectivo basado en los principios de publicidad concurrencia y capacidad.

Cuando digo con total dedicación, quiero decir que he cumplido con las funciones atribuidas a secretaria en ocasiones en festivos, en periodos de vacaciones o anteponiéndolas a la vida privada, sin poner dificultades y primando siempre la profesionalidad.

2.- Respecto de la redacción del acta, para evitar los problemas que ha suscitado y con el objeto de recoger las intervenciones de los concejales con la mayor fidelidad posible, he recogido y utilizado los modelos de otros

ayuntamientos, Donostia, Tolosa, ... (fuente de la información las páginas web).

3.- El informe de legalidad sobre la posibilidad de incluir en el Orden del día una moción debatida y rechazada tras la votación en el Pleno anterior, la leeré a continuación y se os repartirá.

4.-Respecto de la distribución de las actas de la Comisión de Gobierno y el tema de las credenciales de concejales, han sido resueltas fuera del Pleno y en adelante también, será así, como procede.

5.- Por último si el ejercicio profesional de mi cargo ha generado daños o perjuicios, pido disculpas.

Ahora pasaré a leer el informe que se me solicitó desde este pleno. Lo leo, primero en euskara y luego en castellano. Luzatuko du baino ...

AURREKO PLENOAN ONARTU EZ ZEN GAI BAT, HURRENGO PLENOKO GAI ORDENEAN SARTZEARI BURUZKO LEGEZKOTASUN TXOSTENA

Txosten hau, 2007ko azaroak 29ko Udal Batza Osoko bilkurak horrela eskatuta luzatzen da.

APLIKAGARRIA DEN LEGEDIA

1.- Apirilak 2ko 7/1985eko Legea, Eraentza Lokaleko oinarriakarautzen dituen.(ELOL).

2.- Apirilak 18ko 781/1986 Errege Dekretu Legegileak onarturiko eraentza lokaleko gaien lege xedapenen Textu Bateratua. (47,2 Atala).

3.- Azaroak 28ko 2568/1986 Errege Dekretuz onarturiko Udal Gorporazioen Antolaketa, Funtzionamendu eta Eraentza Juridikoari buruzko Erreglamendua.

4.- Azaroak 26ko 30/1992 Legea, prozedura administratibo amankomuna eta administrazio publikoen eraentza juridikoa.

AURREKARIAK

Txosten hau aurreko Plenoan onartu ez zen mozioa bat, berriro ere hurrengo Plenoko Gai Ordenean sartzearen legezotasuna argitzeko eskatu da.

Aurreko Plenoan mozioa ez zen onartu, zenbait zinegotzik bilera aretoa gaia bozkatu aurretik utzi zutelako. Plenoan bertan iragarriaz berriro ere sartuko zela.

AIPAMENAK

.- Formalki, AFE-ko 97,3 Atalean dioenaren arabera -Plenoko eztabaiden funtzionamenduari buruz- Mozioa zuzenki Plenoaren aurrean aurkezten den proposamena da, presazko bidetik ohiko plenoetan , idatziz nahiz hitzez.

.- Kontzeptualki, Mozioa, gorporazioari, bertako kide batek edo gehiagok, elkarte edo talde sozial batek zuzentzen dioten proposamen bat da, eztabaidatua eta bozkatua izan dadin.(UZEIko hiztegi juridikotik jasotakoa)

Mozioaren edukia gai konkretu batekiko borondate politikoa adieraztea izaten da.

Mozioak intentzio edo adierazpen azalpenak izaten dira. Zentzu honetan ez dute zuzenki eskubiderik aitortzen, beste egintza administratiboen garapena eskatzen dute. Beraz ez dute hirugarrenetikiko kalterik sortzen eta Administrazioak edozein unetan geroagoko eta kontrato beste akordio baten bidez, efektu gabe utz ditzake.

.- Plenoko Gai Ordena finkatzea eta deialdia egitea Alkateari dagokio. Gai Ordenean sartzen diren gaiak aurrez eztabaidatuak izan behar dute.(82 atala AFE eta 47,2 ELTB)

ONDORIOAK

.- Indarrean dagoen legediarekin bat dator aurreko Pleno batean onartu ez zen gai bat, hurrengo Pleno bateko Gai Ordenean sartzea eztabaidatua eta bozkatua izan dadin.

.-Ez dago inongo lege xedapenik hori debekatuaz.

.-Nahi adina aldiz sartu daiteke.

Zentzu honetan eta adibide gisa 2003tik Plenoan gai beretsuari buruz, behin baino gehiagotan eztabaidatu eta bozkatu diren gaien inguruko mozioak:

Emakumeen inguruan genero indarkeria eta emakumeen eguna (Plenoa: 2003-11-27 PNV-EB.IU, 2004-11-25 eta 2007-03-30 (PSOE)).

Presoen inguruan (2004-11-18, Atxiloketak Zumaian, 2005-05-26 Izustarri Euskal Preso Politikoak, 2007-03-30 Etxerat de Juana,).

¿Puede incluirse en el orden del día un asunto que fue rechazado en una sesión plenaria anterior?

En principio no hay inconveniente en incluir los asunto rechazados en una nueva sesión, pero los Concejales no tienen derecho a ello. Todo asunto rechazado puede incluirse en una nueva sesión, pero por decisión del Alcalde, a quien corresponde fijar el orden del día. (arts 82 DEL Reglamento de Organización, Funcionamiento y Régimen Jurídico de las Entidades Locales (ROF), aprobado por Real Decreto Legislativo 2568/1986, de 18 de noviembre y 47,2 del Texto Refundido de Régimen Local (TRRL), aprobado por Real Decreto Legislativo 781/1986, de 18 de abril. Si fueran los concejales quienes propusieran la inclusión de dichos asuntos en un nuevo Pleno, entendemos que el Alcalde podrá, motivadamente, rechazarlo.

Pese a que hay una doble corriente jurisprudencial respecto así el Presidente de la Corporación debe incluir las propuestas de acuerdo que presenten los concejales, la postura que defiende la obligatoriedad de incluirlas se basa en que las atribuciones del Alcalde tienen como límite las reservadas expresamente al Pleno, por lo que la negativa del Alcalde supondría excluir del conocimiento del Pleno un asunto de su exclusiva competencia (STS de 24 de junio de 1987). Lo que no podría invocarse de un asunto que ya ha sido tratado y rechazado.

Por otro lado, aunque no tenemos jurisprudencia al respecto, bueno será recordar que los distintos Gobiernos, cuando han perdido la votación de una Ley por falta de apoyo parlamentario, no han dudado en volver a preentarla en otra legislatura, sin que nadie haya argumentado que no estén es su derecho.

SRA. CRISTINA FORCADA: Yo el día de autos, no me ausenté del pleno sencillamente no vine por motivos de trabajo. Aquí dice que dos concejales se ausentaron de la sala antes de la votación, eso no es real, me gustaría que quedara constancia, yo ese día no me fui del pleno realmente no vine al pleno, por motivos de trabajo, quiero que quede claro en el informe, por favor.

IDAZKARIA: Bueno eta nire aldetik besterik ez, honekin lasaiago gelditzen naiz, behintzat hori hor geldituko da.

ALKATE-LEHENDAKARIA: Norbaitek zerbait zerbait esatekorik aktari buruz ? edo hemen hitzegin den guztiari buruz ?, Paloma.

SRA.P.HEREDERO: En primer lugar buenas tardes y disculpar mi tardanza; pero es que los viajes son así y me ha pillado un poco más de tráfico hoy. Yo sí quiero decir por alusiones unas cuantas cosas si se me permite. Primero bueno, pues vuelta a la burra de trigo. En ningún momento he intentado decir, cuestionar tu profesionalidad, sí he dicho y reitero y porque además es que los hechos son tozudos y demuestran que hoy me has dejado aquí mi credencial de concejala del año 2003; el otro día retiré mi credencial de concejala del 2007 y también retiré la declaración de bienes patrimoniales que está sin rellenar, que tenía que haber rellenado cuando tomé posesión del cargo. No es menos cierto que el otro día también se me dieron todas las actas del mandato anterior, como creo que no se entendió, las actas del mandato anterior ya no tienen ninguna validez porque el mandato finalizó. Lo que yo quería decir era que desde el mandato anterior, es decir desde hacia cuatro años y pico no se me estaban enviando las actas, excepto una en una ocasión, evidentemente fue un trabajo que yo agradecí, que fue baldío, totalmente baldío, porque el mandato ya finalizó. Tengo un tocho de folios así, magníficos que no sirven para nada, para leerlo. Yo no estaba pidiendo las actas de las comisiones de gobierno del mandato anterior, lo que estaba intentando decir y reitero es que una vez incluso por escrito había pedido, solicitado las actas de las comisiones de Gobierno, no se me habían dado a lo largo de los cuatro años del mandato anterior, no que yo quisiera las actas del mandato anterior, ya no tienen ninguna validez, espero que en éste, sí que se hagan llegar en tiempo y en forma.

Ocurrió también que en el mandato anterior que cuando solicité una información para ver si yo podía firmar las cuentas del Urola-Kosta, creo que se llama ó no del Portua, o no sé ahora mismo, perdonarme, pues cinco meses después y una vez que yo ya me negué a firmar las cuentas, me llegaron a través de un Mensajero a Madrid, con la premura de que tenía que verlas y firmarlas allí, porque había que devolverlas en ese mismo instante. Es decir, lo siento, no sé si es una cuestión tuya, personal, supongo que no y esto ya ha quedado aclarado la otra vez, pero lo que sí es que está claro es que no ha funcionado que no me estoy quejando porque sí y además que puedo demostrarlo con hechos. Es decir, aquí está.

En cuanto a tu profesionalidad y demás, yo no lo niego. Las cuestiones estas de victimismo, perdóname, si trabajas mucho los fines de semana o no, tú sabrás esto es lo que tienes que hacer, si tu quieres hacerlo, me parece victimismo, yo no me quejo de venir aquí todos los meses y hacer y venir y volver, es decir esto ya entra a formar parte de las personas, pero en fin que si también te gusta, pues adelante. Te honras, esto te honra, pero como a todos los trabajadores no más. Tú sabrás lo que tienes que hacer. Y en cuanto a lo demás, pues de verdad, a mí me parece que en

estas cosas una menor dosis de orgullo nos vendría bastante bien a todos, yo simplemente estoy quejándome de aquellas cosas que en su momento demandé desde hace más de cinco años y puedo demostrar que no las he tenido, nada más, o sea es lo único, no cuestiono nada más y lo que sí que quiero es que se ponga remedio a la situación, nada más, yo sí me he sentido mal, sí me he sentido dolida, y sí me he sentido vulnerada, como cargo público es lo único y así lo dije y lo puedo demostrar, éstos son los hechos, si queréis volvemos a sacar esto más veces, pero además no considero que tenga que pedir ningún tipo de disculpas, puesto que, es lo mío es igual que te dije el otro día, lo único que tengo es una reacción ante una acción. La acción es esta, los hechos están aquí, incluso esto es decir, todo, incluso la declaración de bienes, yo cuando yo te decía es que no la tengo tú me decías, la tenemos todos, yo pues, todos menos yo.... y aquí está hoy la traigo para rellenarla y dejarla, es decir, es que no, es que aquí están mis credenciales 2007 que me has dejado ya encima, del 2003 que me has dejado encima de la mesa, etc. Etc. No. Hasta ahora en cuanto a mi persona se refiere, la Secretaría General, que no digo Miren, digo la Secretaría General no ha funcionado correctamente y espero y estoy convencida de que de ahora en adelante ésto funcionará mejor, nada más es lo único que quiero decir. Gracias.

ALKATE-LEHENDAKARIA: Bueno, pentsatzen dut gauza hauek baita ere hitzegin beharko direla, baina seguru asko planoan baino, idazkarian eta Palomaren arteko elkarrizketa batean, badakit egon zela baina pentsatzen dut pleno aretoko edo plenoko gaia ez ezik.....

SRA.P.HEREDERO: Estoy totalmente de acuerdo, pero es que se ha sacado el tema....

ALKATE-LEHENDAKARIA: Bueno, hemendik aurrera behintzat izan dadila horrela eta gauzak akkuratuta geratu daitezela.

MANU ZUBIA JNA: Lehen, badirudi entzun dudala, hemendik aurrera Ezker Batua eta Aralarrek azaldu dutela -alderdi politiko bat bezala aurkeztu baziren ere- hemendik aurrera - ez dakit hori ondo ulertu dudanberaiek azalduko direla alderdi politiko desberdin bezala, eta horrexegatik jasoko dutela diru kopurua ere aparte , edo jasotzen dutela. Orduan, horrek suposatzen du, bozeramaile desberdinak izango direla? Ez dakit nik galdetu egiten dut. Behin batean, Andonik ere, galdetu zuen, bozeramaile bat edo

bi ziren eta gero horrekin lotu nahi dut azken batean, komisioetan E-B-Aralar bezala dauden edo nola dauden. Jakiteko da guzti horretan komisioen konposaketan nola gauden.

ALKATE-LEHENDAKARIA: Nik ulertu dudana da, - baina orain emango dizuet hitza- eta esplikatuta nahi nuena da, beraiek aurkeztu dutela bozeramaile bat izango dutela, komisioetan aurkeztuko direla bere garaian plenoan adostu zen bezala bakoitza bere komisioetan, baino galdetzerako orduan, galdetu dadila bi alderdi politiko izango balira bezala, Ezker Batua eta Aralar, hala eta guztiz ere zuek zarete egokienak erantzuteko, nik horrela ulertu dut.

XABIER OLAIZOLA JNA: Gauza da, hemen zinegotzi bakoitzak bere bozka duela, baino hemen, eta ez herri deneta. Hemen bozeramaileei galdetzen zaie zein den bere alderdiaren bozka. Gauza da, hemen bion artean, beti ez dugula zertan bozka berdina eman behar eta eskatzen duguna da bakoitzak gure bozka ematea. Batzuetan berdina izango da eta beste batzuetan, igual ez da berdina izango. Eskaera hori da.

Diruarena, Iñakik esan duena, dirua ematen zaigu alderdi bat izango bagina bezala, orain kontu batean joan beharrean, erdia joaten da kontu batera eta beste erdia joaten da beste kontura. Ez gara bi alderdi, alderdi bat gara, baina kontu bat izan beharrean, Ezker Batuak kontu bat dauka eta Aralarrek beste kontu bat. Orduan erdia joaten da kontu batera eta beste erdia beste kontura. Ez gara bi alderdi, baina hemen bozkak bakoitzak berea daukagu, zuek lau daukazuen bezala, guk ditugu bi, hori bakarrik.

MARIA EUGENIA ARRIZABALAGA ANDREA: Bai, hori horrela da eta zinegotzi bakoitzak bere ahotsa, lehenago komentatu dugun bezala, diru kontuetan ere ez dago pegarik, baina bai duda planteatzen zaigula momentu honetan, sortzen zaigun duda da batzorde informatiboetan plenora ekarriko diren gaiak diktaminatzerakoan nola izango den botua. Alegia, zuek bi alderdi zarete, talde bat, baina batzorde batzuetara bat joaten zarete, beste batzuetara beste bat, eta batzorde horietan plenora ekartzeko gairen bat dagoenean diktamena bozkatu behar izaten da eta orain artean suposatzen zen problemarik ez zegoela, baina klaro, dagoenari tokatzen baldin bazaio ados egotea juxtu gai horrekin, diktamena aurrera atera daiteke, baina juxtu zuen taldeko bat desados dagoena gai horrekin batzorde konkretu batetan, diktamenaren aurka egon daiteke, bestea alde dagoenean, ez dakit, hori zuen artean konpondu beharrekoa da, baina hor sortu daiteke halako nahasketa bat, ez?

XABIER OLAIZOLA JNA: Hori, alderdi guztietatik joaten da bat, pertsona bat joaten da alderdi guztietatik, eta gero lau bozka daude?

MARIA EUGENIA ARRIZABALAGA ANDREA: Baina, gu beti joaten gara bat, eta batek baietzkoa esaten badu, suposatzen da gainontzekoen ahotsa adierazten duela eta zuen kasuan berriz, oraintxe esaten dezuaren arabera gerta daiteke horrela ez izatea.

XABIER OLAIZOLA JNA: Bai, bai, gerta daiteke.

SR. CRISTINA FORCADA: El voto de las comisiones informativas, tampoco es vinculante, pero bueno, más que nada lo de la diferencia de voto la tendremos en asuntos políticos, cada partido es cada partido y punto. En cuestión municipal, o sea, seguiremos como hasta ahora. En principio es nuestra idea.

ANDONI ETXANIZ JNA: Nik pentsatzen dut, ditugun arazoekin, nahiko lan badaukagula, eta bueno arazorik ez dagoen lekuan arazoak ez nituzke bilatu nahi behintzat, eta nahiz eta agian ez den oso funtzionamendu, ez dakit, ortodosa, nik behintzat ez dut uste gehiegi kostatuko zaigunik, bati galdetu eta ondoren besteari eta beraien diferentziak agertu behar direnean ba agertu daitezela oraindik eta indar gehiagorekin, neregaitik behintzat, ez dakit Idazkariak kontrakoa esaten ez baldin badu, ba galdera bat gehiago edo gutxiago. Orain eman diogun denbora baino gehiago ez digu eramango legealdi osoan.

XABIER OLAIZOLA JNA: Beste gauza bat da esatea banandu egiten garela eta gero elkarlanean segi, beste aukera hori badago. Bakoitzak bere dirua aparte jasotzen du, talde bakoitzak bere dirua, ez erdibana, orain bezala, baina gero elkarlanean segitzen badugu, guk hori ez dugu nahi egin, hemen esan banandu egiten garela eta gero biok elkarlanean segi. Hori beste aukera bat da, eta diru gehiago jasoko genuen, eta bi despatxo edukiko genituen bat eduki beharrean, baina hori ere ez da, elkarlanean ari gara eta ez dugu esan nahi banandu egin nahi dugula, nahi dugu bakoitzak bere bozka eman, besterik gabe.

ALKATE-LEHENDAKARIA: Ez dakit bi despatxo “por cuestiones físicas” egongo liratekeen eta diru gehiago ere ez dakit, begiratu beharko

litzateke, baina ez zait iruditzen, baina bueno, hori begiratzea izango litzateke. Bueno besterik gabe bigarren puntura pasako gara.

SRA.PALOMA HEREDERO: Disculparme, yo es que hoy vengo más torpe. Entonces a partir de este instante, yo tengo que entender que Ezker Batua y Aralar votan separado, pero están juntos? Las comisiones también son historias políticas, son asuntos políticos, disculparme, todo son asuntos políticos, entonces en las comisiones ¿ vais a votar juntos o no?.

SRA. CRISTINA FORCADA: (Erantzuna ez da ulertzen)

SRA.PALOMA HEREDERO: Bueno, ya independientemente.

SRA.CRISTINA FORCADA: Son comisiones informativas.

SRA. PALOMA HEREDER: O sea, no tiene nada que ver con esto según vosotros.

SRA. CRISTINA FORCADA: Sí tiene que ver, si tiene que ver...

SRA. PALOMA HEREDERO: No, te lo estoy diciendo en serio, es decir es que yo no sé si a partir de este instante, si ésto es un momento, un punto de inflexión, o sí esto es que ahora tenemos una modalidad nueva, es decir, a mí me gustaría saber que es lo que está pasando realmente aquí, porque aquí está pasando algo, entonces...

ALKATE LEHENDAKARIA: Yo creo, Paloma ...

SRA. PALOMA HEREDERO: No, no, no.

XABIER OLAIZOLA JNA: Lo único que está pasando, es que Aralar tiene que tener su voto como concejal y Ezker Batua tiene su voto como concejal.

SRA. PALOMA HEREDERO: Vale, perfecto, luego ya está ocurriendo algo.

XABIER OLAIZOLA JNA Si queréis, lo hacemos ahora mismo, nos separamos y en las comisiones donde vaya Cristina, va haber un ausente siempre que soy yo, entonces no va haber mi voto, o sea porque mucha gente, se ausenta aquí en las Comisiones.

SRA. PALOMA HEREDERO: Vosotros sabreis.

XABIER OLAIZOLA JNA: Lo que podemos hacer es separarnos que no ocurre nada.

SRA. PALOMA HEREDERO: Que a mí me da igual que la Comisión sois vosotros.

XABIER OLAIZOLA JNA: Que en las comisiones donde voy yo no va a ir Cristina y donde va Cristina no voy a ir yo, va ha faltar un voto.

SRA.PALOMA HEREDERO: Disculparme, disculparme, lo que yo quiero decir, es que vosotros sabéis si seguís siendo coalición o sino queréis ir en coalición, si queréis hacer votaciones conjuntas, si no las queréis hacer, es decir, esto es algo que vosotros tenéis que determinar, yo no evidentemente.

SRA. CRISTINA FORCADA: (Erantzuna ez da ulertzen).

SRA. PALOMA HEREDERO: Bien, pero que aquí, que es eso lo que no estoy entendiendo, es decir, que dependiendo de cada punto del orden del día, en uno va a votar Ezker Batua y en el otro Aralar, independientemente, ó los dos, aunque sean votos diferentes. Vale?

SRA. CRISTINA FORCADA: (Ez da ulertzen).

SRA.PALOMA HEREDERO: Bien, bien perdonarme, que es solo una aclaración, que quiero saberlo.

ALKATE-LEHENDAKARIA: Digo por resumir, lo que yo he entendido, es que de aquí en adelante las votaciones - de hecho además, puse en práctica o pusimos en práctica en la legislatura anterior, perdón, en el pleno anterior - donde se preguntó a Ezker Batua y a Aralar su voto. Fue una petición hecha por ellos un poco antes que el pleno anterior, entonces, en esto se ha formalizado y se ha querido explicar que de aquí en adelante se les va a pedir el voto a cada uno de ellos. Y las comisiones informativas, en una va a estar Xabier y en otra va a estar Cristina, ellos están de acuerdo en que sea así y ¿de qué manera? flexible, entendemos que de aquí en adelante va a ser así.

SRA. PALOMA HEREDERO: Que vale, vale, que es que yo quería simplemente hacer la aclaración, de, si luego en el pleno cada uno vota diferente o no, da igual sólo era una aclaración.

ALKATE-LEHENDAKARIA: Siempre se les va a pedir el voto por separado, luego ellos verán.

SRA. PALMOA HEREDERO: Sólo quería una aclaración, vale, gracias.

IDAZKARIA: Komentariotxo bat, hau azken orduko zerbait izan da, gai ordenean ez dago sartuta, eta formalki gai ordenean sartzeko, presazko gai bezala sartu behar da. Kontu ematea bakarrik izango da, baina formalki egin beharko duguna eskari-galderetan gai hori tratatu nahi den edo gai ordenean sartzeko. Eta bestalde idatzi horren edukia zein den jakin behar da, bi bozeramaile dauden, ez dakit, beraiek, “a efectos de funcionamiento de pleno” nola nahi duten eta “a efectos de las comisiones informativas”.

ALKATE-LEHENDAKARIA: Hori da beraiei eskatu zaiena eta badakit bueno ba... ekarri duzuela, oker ez baldin banago eta hori guztia aklaritzen dugunean, hala eta guztiz ere jasoko dugu pleno honen eskari-galderetan

azalpen hau eman dela eta eskari-galderetan jarriko dugu eta datorren udal batzan akklaratuko dugu, hobeto.

ERABAKI ZATIA

PARTE RESOLUTIVA

Aho batez,
ERABAKI DA:

Por unanimidad,
SE ACUERDA:

2007-10-25 eta 2007-11-29ko Udal Batza Osoetako bilkuretako aktak onartzea.

Aprobar las actas de las sesiones Plenarias de fecha 25-10-2007 y 29-11-2007.

2.- 335 ZK-DUN ALKATE DEKRETUAREN BERRI EMAN: LAN KONTRATUAREN IRAUNGITZEA.

2.-DAR CUENTA DE LA RESOLUCION DE ALCALDIA N° 335, SOBRE EXTINCION DE CONTRATO LABORAL

ALKATE-LEHENDAKARIA: Udalak erabaki du eta gaur hain zuzen Gobernu Batzordean erabaki da, Zumaiako udaleko dependentzi guztiak, lokal guztiak, kontratu bidez esleituko zaizkiola empresa bati. Gaur egun, lokal bakoitza, garbitasunerako enpresa jakin batek egiten du eta fakturazten digu bertan egiten dituzten garbitasunak. Hori horrela izan da, gaur egun, langile bat zegoen Foronda, -oker ez baldin banago- garbitzen zuena eta jakin da hori izan dela guk hartutako erabakia, zentzu askorik ez zeukan eta berarekin hitzegin ondoren akordio batera iritsi gara eta beraz garbitasuneko arlo guztia ateratzen dugu pleguetan gaur onartu bezala Gobernu Batzordean.

Hala eta guztiz ere Gobernu honen funtsa da, ahalik eta zerbitzu gehienak udalak zuzenki kudeatu ditzala. Zentzu horretan, azterketa egiten ari gara, dagoeneko, hori gureganatzea zer kostatuko litzaigukeen jakiteko, baina gauzak gauzetik egunera egiten ez direnez, oraingoz azterketa egiten ari gara. Eta ez zeukan zentzu askorik jakinik kontratua atera behar genuela, langile honen iraupena mantentzea eta berarekin hitzegin ondoren akordio batera iritsi gara eta hori da eman nahi genuen berria, ez dakit norbaitek esatekorik duen edo ez eta bestela, hirugarren puntura pasatuko gara.

3.- HAZIENDA

3.1.- 2008.KO ORDENANTZA FISKALEN JENDAURREKO EPEAN AURKEZTUTAKO EMENDAKINA EBAZTEA, BIDEZKO BADA.

3.- HACIENDA

3.1.- RESOLUCION DE LA ALEGACION, PRESENTADA EN EL PLAZO DE EXPOSICION PUBLICA DE LAS ORDENANZAS FISCALES 2008.

ALKATE-LEHENDAKARIA: Hemen badakizue ordenantza fiskalak aurkeztu genituela, bere garaian, eta zaborren kontzeptuagatikoa alboratuta geratu zela. Hain zuzen ere, kontzeptu horregatik akordio bat bilatzeko asmotan, ogasuneko batzordean hainbat bilera egin ondoren, nola baiteko akordio batera iritsi gara. Alde batetik jaso dugu Ezker-Batua eta Aralarrek bere garaian progresibitatearen inguruan egindako hausnarketaren inguruan, proposamen bat; Aralarrek onartu zuena eta progresibitate horren inguruko taula bat aurkeztu ondoren bai Aralar, ANV eta EAren partetik aurkezten dugu emendakin modura. Eta beste alde batetik EAJk aurkeztu zuen Foru Aldundiak martxan jarri zuen konpostaje programan partehartzeagatik % hamarreko deskontua egiteko aukera, programa horretan parte hartzen zuten pertsoneri. Hori ere onartu zen. Eta beraz oker ez baldin banago - hemen dago txostena - dagoeneko denok badaukazue, izango litzateke onartzea, kontzeptu horiengatik, guk ordenantza horietan kontzeptu berri horiek, itsastea edo onartzea, bidezko baldin bada, baten batek zerbait esatekorik ?

MARIA EUGENIA ARRIZABALAGA ANDREA: Bai, ondo esan duzun bezala, batzordera eraman zenuten ordenantza fisalen diktamena. Diktamena aurrera atera zenuten, besteak beste gure abstentzioarekin. Plenora ekarri zen, guk gure abstentzioa mantentitu genuen, eta horrekin, proposamena bere horretan ateratzea zeneukaten. Hala ere, azken momentuan zeuron proposamenari emendakina sartu zenioten zaborren tasak zintzilik utziz. Emendakin horri, berriz alegazioa sartu behar izan diozue, gaur honera abenduaren azkenengo egunetan alegazio hori dakarkizue aprobazera, hasieran % 33ko igoera proposatzen zenuten zaborretan, % 33a, orain berriz aipatu dudan bide korapilatsu horren ondoren % 50ena eta % 50eko igoera hori makilatzeko asmotan, ekartzen duzue proposamena oso kuadrotxo dotore batekin lagunduta, biharko egunkarietako titularretan nolabait bigunduta agertu dadineko asmotan. Geure ustez, eta makilatzeko diogu, zeren nik ez dakit ondo begiratu diozuen eta aztertu duzuen, kuadro horren aplikazioak zer ondorio dauzkan, baina gauza benetan bitxiak gertatzen dira, eta lehenago aipatu duzun progresibitate horren erabat aurkakoak. Gure ustez, ariketatxo bat egin dugu, pare bat adibide ekartzeagatik eta kalkulua egin dago, 2007ko salario minimo interprofesionalaren arabera eta ez dakit zenbat ziren 750 € dena dela, 600ekin egin daiteke eta badauzkat beste ariketa batzuk

600ekin egindakoak, baina adibidez gerta daiteke ba ehuneko gehi ehuneko 30eko kolumna horretan aurrengo lekuan agertzen den % 25eko hobaria, 780 € hilean daukan familia bati, pertsona bakarreko familia bati, 780 € pertsonako eta hileko daukan bati % 25eko hobaria planteatzen diozue, tira... baina joaten baldin bazarete gehi 40 markatzen duen kolumna horretara, hor hiru laguneko famili batek, pertsona bakoitzeko eta hileko 280 €kin baita ere % 25eko hobaria izango luke, baina joaten bazarete gehi 50eko kolumnara, gerta daiteke hiru laguneko familia batek 900 €ko diru sarrerekin pertsonako 300€kin inolako hobaririk ez jasotzea eta laugarrengo adibide bat ez jartzeagatikan, azkenengo kolumnara joaten bazarete, 240 € laguneko, duen lau pertsonako familia batek ez luke inolako hobaririk jasoko zuen kuadro dotore honen arabera. Eta beraz bietako bat, edo ez dituzue kalkuluak egin edo ez duzue kuadroa begiratu edo kalkuluak egin badituzue, nahiko eskaintza merkea irudituta bota duzue, honera ekarri duzuen hau. Dena dela, gure ustez, benetan gauzak egiten hastekotan, benetan egiten dira edo ez dira egiten. Hori mamira joan ezkerro, zeren formen aldetik, guk, denok badakigu, - urte batzuk daramagu Udal honetan gora eta behera eta badakigu -Udal guztiak orokorrean eta Zumaiakoak bereziki zein zailtasun dituzten pertsonen eta familien diru sarrerak eta jabegoak kontrolatzerako orduan, eta jartzen dituzuen baldintzak ba ez dakit, nola kontrolatu ahal izango diren.

Eta bide batez iruditzen zaigu, baita ere, ez duzuela lehenago esan dudan bezala, batere azterketa sakonik egin. Honek zer suposatzen duen, ez digu batere beldurtzen, Udal kontutan zer eragin izango duenak, zeren ikusten dugu nahiko eragin eskasa alderdi horretatik. Lehenago aipatu dudan beste alde horretara bai, gehiago itxurakeri hutsa iruditzen zaigula eta guk pentsatzen dugu, kuadro hauetan sartzen diren kasu gehientsuenak edo denak AESak kobratzen dituztenen artean geratzen direla eta AESak bai daudela ondo erregulatuta, horiek bai dituztela Gizarte Zerbitzuetan jendearen beharrak eta jendearen nondik norakoak kontrolatzeko. Hitza ez da polita, baina gutxienez familien kontu ekonomikoak jakiteko ahalbideak ematen ditu eta ez Udal honetako hazienda teknikariak. AESak erregulatzen dituen Dekretua ekarri dizuet Joseba Azkarragak sinatua joan den otsailean, baten batek ikusi nahi balu. Hemen agertzen dira zenbait supuesto eta horietako bat da “Por gastos relativos a las necesidades primarias hasta 1.850 €”. Ulertzen dugu, bai ura eta bai zaborra eta apuratzen bagaituzue seguruenik ere hilerriko gastuak, gutxienez hor sartzen direla. Akaso kiroldegikoak ez eta akaso hondartza joateko ontzikoak ez, baina bueno edozein modutara hemen uzten dizuet eta gure ezezko botua.

SR. EMILIANO CABAÑAS: Entramos prácticamente en la misma discusión que entramos en la comisión de Hacienda; son decisiones políticas que hay que tomar y que hay que asumir. Pretender tomar las decisiones políticas pero no asumir las responsabilidades y tratar de maquillarlas, pues da lugar a este tipo de zafarranchos que no sabe uno muy bien como tomarlo, ni que tipo de resultado va a tener. Yo estuve en la Comisión, veo que no merece la pena decir que no, sencillamente lo que sí veo, es prácticamente la imposibilidad de ponerlo en práctica. María Eugenia ha dado una serie de ejemplos, pero se pueden dar cien mil más. Una persona que gane menos del salario mínimo interprofesional, sea cual sea la cuantía y por supuesto haya reclamado o haya solicitado esa ayuda que tiene establecida o que va a establecer, de alguna manera está recogida en Presupuestos, por parte de la Diputación, y resulta que el Ayuntamiento no se va a enterar nunca, porque son gratificables y por lo tanto si el único medio que tienes de enterarte es la declaración de la renta, al ser una ayuda gratificable por parte de la Diputación para complementar hasta el salario mínimo interprofesional, no se va a enterar el Ayuntamiento, porque no tiene la capacidad para ello, por lo tanto le va a aplicar en base a un salario que no es real. Y si esa familia está necesitando la ayuda no es porque le sobre el dinero ni mucho menos, pero es que no es real, entonces se trata de puro maquillaje cuando las cuestiones son como son. La basura cuesta lo que cuesta y de acuerdo con lo que está en vigor, tanto el agua como la basura, el coste a repercutir es del cien por cien a cada uno de nosotros. Es además la única manera que se ve como posible de que a un mayor coste haya una mayor autorregulación en todos los sentidos en el consumo del agua, en un mejor reciclaje indistintamente, si te apuntas o no al de materia orgánica que ésa es otra, digamos otra faceta dentro de esto de los residuos urbanos. Por lo demás, se presenta esta tabla, veremos a ver qué tipo de aplicación tiene. También se dijo y se recoge aquí - como muy bien se dijo en la Comisión- el capital mobiliario de la familia deberá ser inferior a ocho mil euros. Con ese límite de dinero, nunca lo va a tener que declarar, no hay declaración de patrimonio posible. Por lo tanto no vas a saber si lo tienes, si no lo tienes, si lo dejas de tener ¿cómo vas a llegar a ese dato? Salvo que fuera una cantidad importante y tuviera que hacer una declaración de patrimonio, entonces, sabría lo que tiene pero con ocho mil euros no hay que hacer declaración de patrimonio, como mucho aparecerá en el casillero de capital mobiliario, lo poco que le hayan producido los ocho mil euros en el banco, pero más no va a aparecer porque la declaración de la renta es la que es, no es otra, entonces, digo no se trata más que de un maquillaje para poder poner ahí el 50%, pues muy bien, me parece muy bien, es una decisión vuestra, pero que desde luego nosotros no la podemos apoyar así, sin más a sabiendas de la imposibilidad o prácticamente la nulidad de la tabla aquí expuesta en cuanto a lo que va a

tener de cara al ciudadano. La segunda parte es que no se trata de aplicar algo tratándolo de disimular, no. Si tiene que ser el 50 es el 50 y si tiene que ser el 60 es el 60 y tirar adelante con lo que hay. Porque al final un día u otro habrá que aplicar la diferencia que ahora se deja de aplicar y cada vez va sumándose a mayores. Tendremos que ir viendo de donde adoptamos el dinero para ir sufragando el déficit que vamos creando en algo que no tiene rebaja posible. Sino que de aquí a unos años - el estudio se sabe y el conocimiento de todos los costes se sabe- va a ser el que va a ser. No sé si dentro de unos años cuando esto todo tenga otro tipo de normalización, trato o demás, pueda llegar a tener sino una congelación por lo menos, o sea sino una rebaja, una congelación, pero hoy por hoy no es así, por lo tanto, pues esta muy bien como una declaración de principios, pero que yo entiendo que no va a pasar de ahí.

ALKATE-LEHENDAKARIA: Aralar Ezker-Batua, Aralar.

XABIER OLAIZOLA JNA: Guri ideia bezala taula hau ondo iruditzen zaigu. Baliteke ez egotea oso ondo egina. Zentzu honetan, eskaera bat egin nahi genioke Gobernuari, hurrengo urterako gustatuko litzaiguke ikerketa bat egitea Zumaiako familien egoera sozio-ekonomikoa zein den jakiteko. Hori jakin eta gero ikerketa hori egiten badugu, taula hau egokitzea lortuko genuke benetan familien beharrei. Iruditzen zaigu taula hau oraintxe egin berri dugula, egin duzuela, eta baliteke ondo ez egotea, hori argi daukagu guk ere, ez delako frogatu, ez dagoelako frogatuta, ez dakigu zein egoeretan dauden Zumaiako familiak, beraz, ikerketa hori eskatzen dugu egitea.

Gustatuko litzaiguke esatea egingo den ala ez, eta hori egiten bada, ba gure aldeko botua emango dugu, hurrengo urteetan ikerketa horretan oinarrituta taula hau asko hobetu dezakegulako.

ALKATE-LEHENDAKARIA: Ikerketa egiteko borondatea azaltzen dugu eta borondate bezala saiatuko garela egiten. Ez dakidana da horrek zer suposatzen duen eta materialki guk, udaletxe batek, nahiko garanti badaukagun ikerketa hori egiteko. Hala eta guztiz ere, Gizarte Zerbitzuetatik badago horrelako perspektiba bat Zumaiako, bai AESen inguruan dela edo beste zenbait dirulaguntzen inguruan dela, Zumaiako familien egoeraren gain. Udaletxe batek dauzkan baliabideen barruan, pentsatzen dut borondate bezala, noski saiatuko garela ikerketa hori egiten. Ezker Batua.

CRISTINA FORCADA ANDREA: Berdin.

ALKATE-LEHENDAKARIA: Joseba, zuk ogasuneko batzorde buru bezala zerbait esatekorik?

JOSEBA JOSU AZPIAZU JNA: Lehenengo gauza, ez dakit argi zelan joan den bozketa, PNVek esan du ezetz eta ez dakit besteak azkenean zer erabaki duten.

Bueno nik esan nahi nuen lehenengo gauza, hemen diktamen bat egin zela eta guk behintzat, aurreko legealdian lau urtetan, batzorde baten bozkatu duguna, pleno baten ez dugula sekula aldatu. Badakit egin daitekeela, eta orain itxuraz hori hemendik aurrera izango da dagoen eredia. PNVek ez du aldatu ez zelako etorri, baina zantzua hartzen dut igual beste batzuk aldatu dezaketela. Hori aparte utzita, PNV-ek esaten du honek, eragin eskasa edukiko duela, bonifikazio hauek eragin eskasa izango dutela. Guk ez dakigu zer eragin edukiko duten. Hau esperientzia piloto bat da. Datorren urterako jakiten dugunean zer eragin daukaten bonifikazio hauek haundituko dira edo igual ez dira haundituko, eta ikusiko dugu urte bukaeran eragin eskasa eduki duten edo ez. Hori momentuz ezin da esan. Gero, nola kontrolatu behar den?, ba.. dokumentazioa eskatuta. Errenta aitortpena eskatuta, errenta aitortpena ez daukanari eskatuko zaio agiri bat Haziendakoa, ez duela aitortpenik egin beharrik. Horretaz aparte eskatuko zaio Gizarte Segurantzatik kobratzen baldin badu hango agiria, INEMtik kobratzen baldin badu hangoa eta hortik ez badu kobratzen enpresakoa, eta hortik ez badu kobratzen, eskatuko zaio bankoari ziurtagiriak eta hortik ez badute ematen azken finean, eskatuko zaio “declaración jurada” egitea, beketan adibidez egiten den bezala Hezkuntza Sailean. Hori izango litzateke azken aukera eta dena dela herri txiki batean uste dut, horrelako gauzak egitea posible dela, baina ez hainbeste ere.

PSOEek esaten du, hau makilaje bat dela, bueno PNVk ere bai, makilajea dela, aurreko batzordean, haziendako batzordean, haurtzaindegia esaten zion “barracones” eta orain horrelako hitzak erabiltzen dira. Hau ez da makilajea, hau hazienda batzordean azarotik dago proposatuta, uste dut, o sea, ez da gaur edo bihar egunkariari esateko, zeren egunkarian argitaratu genezakeen aspalditik proposamen hau zegoela, baina ez dugu argitaratu. PSOEek ez dakit zer iritzi daukan beste herrietan edo orokorrean partidu bezala, Azkoitian PSOEko zinegotziak Migel Raimundezek, bonifikazio batzuk aplikatu ditu eta gainera oso harro dago horretaz, lehenengo aldiz delako Azkoitian hori aplikatzen dela, o sea que, ez dakit herri desberdinetan iritzi desberdinak dauden edo bat den PSOE eta bestea PSE,

edo ez dakit. Eta guzti horretaz aparte, gai hau irailetik dago hazienda batzordean. Batez ere, paralizatuta egon da, zaborraren auziatatik, ez guregatik. Mankomunitateak ez zigulako bidali behar diren kostuak. Berak ere, beraz, arazoak edukiko ditu, baina guri Mankomunitateak eman behar digu datu horiek. Egia da, San Markos dagoela, edo ez dagoela bost axola, guk datuak behar ditugu. Eta hainbeste denboran egon da paralizatua eta orain ziur dakiguna da kostua dela % 126a gutxienez ez baldin bada % 200, azkenean ez dakit, baina hori da azkenengo datua dakiguna %126a. Bi hilabete hauetan bai PNVk eta bai PSOEk defendatu dute igo beharko litzatekeela kostu osoa, ez dute esaten hori plenoan, baina hori defendatu dute batzordeetan. Esan beharko lukete igo %126a igo nahiko luketeela, horrela defizita ez delako sortzen. Hori da zuen teoria eta PSOEren ere bai. Aralarrek ere hasieran mantetzen zuen koste osoa igo behar zela, hasierako batzordeetan hori esaten zuen, gero ia, hori, ez du esaten, ez diot entzun behintzat. Beste eskualdeko herrietan gu izan gara gehien igo ditugunak % 50a igo dugu, beste guztietan dut, gehiena % 30a, 25a izan dela. Eta entzun nuen bezala, “os va a temblar el pulso”, ikusi duzue ezetz, %50a proposatu dugula. Igual beste udaletxeetan PNV eta PSOE gobernuan daudenetan, haiei bai “que les ha temblado el puso” eta igo dute %25. Zarautzen PSOEren konformidadearekin baita ere. Hori esplikatzen beharko duzue edo bestela beste herrietan beste teoria aplikatzen duzue. Eta ez daukat gehiago ezer esateko. Ikerketa Sozio-ekonomikoari buruz, erantzun da.

MARIA EUGENIA ARRIZABALAGA ANDREA: Ikerketa sozio-ekonomikoa, nik uste dut egin beharko litzakeela.

ALKATE-LEHENDAKARIA: Gauza bat, bueno, barkatu.

MARIA EUGENIA ARRIZABALAGA ANDREA: Ez dakit zer esan behar zenuen.

ALKATE-LEHENDAKARIA: Esan behar nuena da, hala eta guztiz eskertzen dizutela edo eskertzen dudala zuen jarrera guri erakustegatik AESak nola erregulatzen diren, Joseba Azkarragak ze gauza esaten dituen eta guri luzatzen diguzuen laguntza horrengatik. Eskerrak eman da, batez ere ondo esan duzuen bezala, “nobatoak” geraldako, eta bueno eskertzen dut.

MARIA EUGENIA ARRIZABALAGA ANDREA: Ez, ez dago zergatik. Kontrolari dagokionez, ez dakizuela..., dokumentazioa eskatuz egingo dela eta hau ez badute ekartzen, bestea eta gero bestea eta azkenean “declaración jurada”. Kontua ez da hori, kontua da gu baino askoz estruktura haundiagoko udaletxeetan, nahiko problema dituztela horrelako prozedura zehatzak ezartzerakoan. Gauzak ondo neurtu behar izaten direla hasieratik, gero bidean ez daitezen sortu, oso ondo nola erabaki ez dakizkigun arazoak. Irizpideak markatuta eta argi hasieratik. Eta ez dakigu ... eta hau esperientzia piloto bat da ... esatea bueno, aizu, xalaua eta dena geratzen da, baina nik ez dakit zenbaterainoko fundamentua daukan asunto bat den. Nik ez dakit ikerketa zenbaiterainokoa izan beharko litzatekeen, baina pentsatzen dut egin beharko litzatekeela, gutxienez estimatiboki, Gizarte zerbitzuetatik edo dena dela, kuadro batzuk ekarriaz eta eskatu zenbat familia dauden, zein egoeretan eta zeinei aplikatu behar zaizkion hobariak. Ez dut esaten hobariak handiak direnik, ez alderantziz, egiten hasita txikiegiak iruditzen zaizkigu eta hori baino okerrago, oso injustuak. Kuadro hauetatik ateratzen diren kasuistikak alderatuz, benetan kasu aipagarriak suertatzen dira eta bestela egin itzazue ariketak, gero momentu batean. Ikusiko dugula zer gertatzen den? Bale, ikusiko dugu, noski ikusiko dugula hemendik urtebetera. Xabierrek aipatu duen ikerketa hori ez ezik, baita ere idatziz nahiko gukeena da balorazio bat edukitzea urtean zehar hobariak nola aplikatu diren, zer zailtasun egon diren eta zer onura ekarri dituen sistema berriak.

Guk, guregatik balitz zaborrak, % 126a igoko genituela, esaten duzue. Behin eta berriz errepikatu duguna da, orain artean gobernuan egon garenean gustatu ala ez gustatu eta seguruenik ez gustatuta, zeren tasak eta inpuestoak igotzea inori ez zaio gustatzen, ezta guri ere, nahiz eta tonto xamarrak garen, kostuak kubritzera joaten garela. Baina baita ere aitortu dugu, sekula santan, ez zaigula gertatu aurten gertatzen den saltoa, ikarragarria dela eta ikaragarria izanik bere egunean erreklamatzeko genuena zen, ba nolabait hori agintaldian zehar bideratzeko eraren bat, eta ea zerbait pentsatuta zeneukazuen, aplikazioak progresiboki egin zitezkeen edo. Nik zer dakit, datuak zuenak dira, gobernu ardurak zuenak, eta informazioa zuena, ez gurea. Informazioari buruz zuek esaten duzue – hainbeste denbora zai egon ondoren - ba... San Markosen kulpa edo ez kulpa, mankomunitatetik ez zaizkizuela datuak pasa. Zehazki ez dakit datuak pasa zaizkizuen edo ez, baina orain dela bi hilabete t´erdi % 126 ez baina % 123-z hitzegiten genuen. Nola azkenean bi hilabete beranduago % 50a igotzen duzuen eta oraindik hasierako % 123tik urruti xamar geratzen zaigun ba... ez dut uste hori izan denik zaborren tasak markatzerako momentuan eduki duzuen obstakulua, ez. Eta hori esan duzunean guk ere hona etorri eta esan beharko gukeela ez guk % 126a igoko genuen, hori izango litzateke, nik zuri esatea bejondeizula, azkenean, prigrupen sartzen

zarete eta azkenean aplikatzen dituzue nola bait inzineradora ahalbideratuko dituen tasak.

ALKATE-LEHENDAKARIA: PSOE.

SR. EMILIANO CABAÑAS: Yo no sé de donde sacas que hemos cambiado el sentido de voto, porque aquí, en la anterior intervención no se ha hablado de voto. Por lo tanto no hay cambio. Yo me abstuve en la comisión de hacienda, yo no he dicho que vaya a cambiar.

Considero que es un maquillaje, puesto que la subida es abultada e importante, pero no llega al tope máximo establecido y precisamente por ser una cantidad importante y abultada se trata de maquillarla y lo mantengo. Pero no he cambiado para nada, en cuanto al sentido del voto. Acabamos de aprobar que cada uno de los dos concejales aquí, es un voto. El partido socialista tiene ciento y pico concejales, son ciento y pico votos, yo no tengo que llamar a cuenta a ninguno de los que vota en cada uno de sus municipios, dependiendo de la situación de cada uno, de los acuerdos que tengan o de las cien mil variables que pueda haber. Ni lo sé ni me preocupa. Por lo tanto, aquí el que vota somos nosotros, no es el partido socialista, aunque el partido sea el mismo, los concejales no. No somos los mismos concejales, los de Azkoitia y los de Zumaia, porque allí son unos y aquí somo otros, nada más. Y lo acabamos de aprobar hace un momento, anteriormente, bueno, no aprobar, dar conocimiento del hecho. Pero aquí nadie ha cambiado nada, seguimos diciendo que la subida se trata de una cantidad importante y que ha podido ser Zumaia la que aplique la mayor subida. Vale, alguien tiene que ser siempre el primero y los que hayan subido menos también habrá alguien. El problema es que se crea déficit. Es un problema que padece este ayuntamiento. Un problema que viene derivado de otras actuaciones más o menos políticas, que están creando, pues este tipo de problemas a los ayuntamiento que tenemos que cargar con ellos. Nosotros aplicaríamos el porcentaje máximo establecido según coste, nunca lo hemos negado, por supuesto, estamos hablando de que son dos impuestos que tienen que ir a coste y a coste significa eso, nada más, no otra cosa, sin ningún tipo de maquillaje a coste. ¿Qué no es popular? efectivamente, a quién se lo vamos a discutir eso de que no es popular. Pero ya se vería si estuviéramos en la necesidad de hacerlo, porque estuviéramos gobernando como explicar a la gente cual es la realidad de la cuestión, cual es el coste real de la recogida y tratamiento de los residuos sólidos urbanos y cual es el coste real de la potabilización del agua de cada una de las cuencas que sirven en Guipúzcoa el agua a todos los ciudadanos, y no es más que eso. No se trata de engañar a nadie. No digo que aplicaríamos el 123 porque no me corresponde, pero no porque no haya dicho que es el coste que tiene que llevar y lo haría en su momento si me

correspondiese, pero como no me corresponde como partido, no lo hago sencillamente.

ERABAKI ZATIA

2.008ko Ordenantza Fiskalen jendaurreko epean GOBERNU TALDEAK aurkeztutako OHARPENA BOZKATZEN DA.

Aldeko botuak: 7 (3 ANV , 2 EA eta 2 EB-B/ARALAR)

Aurkako botuak : 4 (EAJ)

Abstentzioak:2 (PSOE)

ERABAKI DA:

2.008ko Ordenantza Fiskalen jendaurreko epean GOBERNU TALDEAK aurkeztutako OHARPENA onartzea.

- 1- Zabor bilketako tasak %50ean igotzea.
- 2- Familiaren kideak eta dirusarreraren arabera, hobariak aplikatzea:

PARTE RESOLUTIVA

SE VOTA LA ALEGACION presentada en el plazo de exposición pública de las Ordenanzas Fiscales 2008 por el EQUIPO DE GOBIERNO.

Votos a favor: 7 (3 ANV, 2 EA y 2 EB-Aralar)

Votos en contra: 4 (PNV)

Abstenciones: 2 (PSOE)

SE ACUERDA:

Aprobar la ALEGACION presentada en el plazo de exposición pública de las Ordenanzas Fiscales 2008 por el EQUIPO DE GOBIERNO.

- 1- Incrementar las tasas de basura en un 50%.
- 2- Aplicar unas bonificaciones en función de los ingresos y miembros de las familias:

Hileroko soldata maila, Profesioarteko Gutxieneko Soldatarekin konparatuz Salario mensual comparado con el Salario Minimo Interprofesional							
	PGS edo < SMI	PGS SMI + %10	PGS SMI+ %20	PGS SMI+ %30	PGS SMI+ %40	PGS SMI+ %50	PGS SMI+ %60
1 – 2	% 90	% 75	% 50	% 25	-	-	-
3	% 90	% 90	% 75	% 50	% 25	-	-
4	% 95	% 90	% 90	% 75	% 50	% 25	-
5	% 95	% 90	% 90	% 90	% 75	% 50	% 25
6	% 95	% 90	% 90	% 90	% 90	% 75	% 50
7 ...	% 95	% 90	% 90	% 90	% 90	% 90	% 75

<ol style="list-style-type: none"> 3- Hobari hauek jaso ahal izateko, familiak etxebizitza, garaje eta trastero baten jabe bakarrik izan beharko dute. 4- Familiaren hondasun higigarria 8.000 euro edo gutxiagokoa izango da. 5- Hobari hauek zabor bilketari, ur-hornidurari, hilerriko zerbitzuari, kirol 	<ol style="list-style-type: none"> 3- Para poder ser beneficiarias de estas bonificaciones las familias sólo serán propietarias de una vivienda, garaje y trastero. 4- El capital mobiliario de las familias deberá de ser inferior a 8.000 euros. 5- Estas bonificaciones se aplicarán a las tasas
---	--

<p>instalakuntzen erabilpenari eta itsasuntzi garraioari dagozkion tasei aplikatuko zaie.</p> <p>6- Hobari hauek, urte barruan eta eskaera egin ondoren sortutako tasei aplikatuko zaie.</p> <p>7- Zabor bilketako tasan, beste %10eko hobaria onartzen da, Foru Aldundiak martxan jarri zuen konpostaje programan parte hartzen dutenentzako.</p>	<p>de recogida de basura, suministro de agua, servicios de cementerio, instalaciones deportivas y transporte fluvial.</p> <p>6- Se aplicarán a las tasas que se devenguen en el año y con fecha posterior a la solicitud.</p> <p>7- Se propone también una bonificación del 10% para los que se sumen al programa de compostaje de la Diputación.</p>
--	---

3.2. -2007ko AURREKONTUA: HAURTZAINDEGIAREN KOKAPEN ALDAKETA.

2.3.- PRESUPUESTO 2007: CAMBIO DE UBICACION GUARDERIA.

ALKATE-LEHENDAKARIA: Hemen badakizue haurtzaindegiaren partidaz ari garela eta segurtasun juridikoagatik ekartzen dugula plenora beraren aldaketa. Izan ere aurrekontuetan haurtzaindegia izeneko partida bat zegoen, baina aurrekontuen memoriaren azaltzen zen haurtzaindegia Amaiako plazan egin behar zela. Guk iritiz aldatuta, uste izan dugu eta informe teknikoak ere hor daude hori baieztatzen dutenak, hobe izango litzatekeela haurtzaindegia hori beste modu batera egikaritu eta Arrangoleta plazan egingo balitz. Zentzu horretan dagoeneko haurtzaindegira bideratuta dagoen partida, berez, bere garain 200 mila €koa jeitsi egiten dugu, 200 mila €tik 148 mila €ara; ez igo, jeitsi. Eta zentzu horretan eta segurtasun juridikoagatik eta jakinik aurrekontuetan memoriaren atalean, Amaiako plazan zegoela jarrita egin behar zela haurtzaindegia, hori aldatzea proposatzen dugu eta nominalki Arrangoleta plaza jarri, Arrangoletan egin nahi dugulako. Hala eta guztiz ere eta aurreko gobernuak gauza guztiak ere ondo egiten ez zituelako, nahiz eta eskertuaz guri botatzen diguten laguntza hori, nik dakidala Amaiako plazan ez zegoen inongo lokalik, beraz, bere garaian ere Bidasoa kalean zegoen lokalean egin nahi baldin baziren edo egokitu nahi baldin baziren, gaur eta hemen egiten ari garen prozedura berdina egin beharko litzateke, Bidasoa kalean egin behar ziren obrak egiteko.

Eta bigarren, obra hauek duten kostua 148 mila €koa da. Eusko Jaurlaritzarekin hitzegin ondoren baldintza guztiak betetzen dituzten haurtzaindegia bat egiteko modukoak. Eta 148 mila €hauetaz aparte, askoz ere kostu gehiago behar ez duten obrak izango dira. Izan ere bere garaian 200 mila € jarri baldin baziren haurtzaindegia bat egiteko, 200 mila € horietaz aparte Eusko Jaurlaritzak dituen eskakizunak haurtzaindegia bat izateko, kunplitzen ez zuenez, horrez aparte, urbanizazio bat egin beharko litzateke Bidasoa kalean bertan hori peatonalizatuz eta beraz 200 mila €

horietatik peatonalizazioaren kostuak ere gehitu egin beharko lirateke, hori horrela izan da, plenora dakargu modifikazio horren aldaketa, aurrera eramanez nahi dugulako. PNV.

MARIA EUGENIA ARRIZABALAGA ANDREA: Bai, aizu, dudarik ez, ez genituela gauza guztiak ondo egiten. Amaiako plaza jarri zen ? ba... ez dakit, denak ulertzen genuen zertaz ari ginen ezta? Eta ez dut uste, zuk esaten dezun bezala, beharrezkoa izango zenik halako adierazpen bereziren bat. Guk gure lehentasunetako bat eta uste dut agintaldi berri honetan ere horrela esan dugula batzordeetan, haurtzaindegia izan da eta haurtzaindegia orain urtarrilean hasiko den matrikulazio epe berrirako prest edukitzeko asmotan ginen. Hala ginen aurtengo aurrekontua aprobataz genuenean, beste batzuekin batera eta beste hiru gela berri zabaltzeko asmotan. Egia da 200 mila € horietatik seguruenik gora joko genuela. Bidasoa kaleko itxura aldaketa medio eta jolas lekua egokitzearen beharra medio, baina egia dena da baita Bidasoa kaleak beste herriko edozein kaleek bezalaxe edo haina merezi duela itxura hobetze bat eta geure buruan itxura hobetze hori ere bazegoela.

Kasualidadea dena da, zuk aipatzen dituzun 148 mila €ko koste hori, oraindik gaur etorri gara honera, egiten duzuen planteamendu honi botua ematera eta ez dugu sekula entzun zenbat kostako diren Arrangoletako plazan jarriko dituzuen prefabrikatuak. Baina kasualidadea deritzot, zeuden 200 mila €atik 7. kreditu aldaketan, orain dela hilabete 7 erdiren bat, oker ez baldin banago, dagoeneko, eta noski baimenik eskatu gabe pleno honi, 52 mila € kenduta daukazutelako ba.. ez dakit urtean zehar edo udaran zehar eragin diren beste gainontzeko zulo batzuk edo zulo horien zatiren bat estaltzekotan, 200 mila, 52 mila €kenduta, edo kasualitatea justu 148 mila € Ba aizue, ikaragarritzko suertea daukazue eta kuadratzen dizue, “que ni pintado”. Hala ere, espero dut, gaur ez dakit, hemen horretarako gai izango zareten, baina hurrengo batzordean nahiko nukeena da bai prefabrikatuek zenbateko kostua izango duten eta baita prefabrikatuek martxan jartzeko beharko diren instalazioak ere zenbateko kostua izango duten. Pentsatzen dut urak eta saneamenduak, argindarrak eta abarrak eramanez beharko direlako plazaren egituraren erdi-erditik. Bueno guk, geneukan kezka hasieratik eta lehendik haurtzaindegia zen, soluzioa hitzartuta geneukan Jaurlaritzarekin, proiektua lantzen ari ginen, udal lokaletan bideratuko zen eta ez plaza erdian jarritako egitura batzuetan. Eta egunen batetan seguru gaude eta hala hitzegin genuen bere garaian ere, beste alternatiba batzuk geneuzkan esku artean. Zuek sartu zintan, eta aurreneko gauza egin zenutena izan zen haurtzaindegia ziren lokal horiek, beste talde batzuei eskeini. Ondoren klaro, haurtzaindegiarekin zer egiten dugu ? ba.. erantzun egin behar galdera. Bueno ba.. orduan okurritzen

zaizue plazan jartzea. Ez dut dudarik egiten - zer gutxiago - jarriko dituzuen prefabrikatuak beteko dituztela Jaurlaritzak agintzen dituen baldintzak, kontratua izango litzake, ez dakit, inplanteablea. Horregatik diot, pentsatzen dut erabat homologatuak izango direla. Edozein modutara ere, behin behineko alternatiba, nahita nahiez.

NEREA EPELDE ANDREA: Zeuronak ere ez zituen betetzen nonbait baldintza guztiak.

MARIA EUGENIA ARRIZABALAGA ANDREA: Guk partzuergoarekin hitzegiten genuenean eta azkena, maiatzean egon ginen partzuergoko arduradun politiko zein teknikariekin bazterrak ikusten, eta zituen ezaugarri guztiak aztertzen, eta pozik aldegin zuten. Itxuraz, pozik aldegin genuen bilera hartatik eta ez zegoen kontrako iritzirik.

NEREA EPELDE ANDREA: Bai, bai, ez dut dudarik egiten.

MARIA EUGENIA ARRIZABALAGA ANDREA: Zuek egiten dezuena da haurtzaindegia lokaletatik atera eta plazan jarri. Horrek ere eman du zer esana.

Gaur eskatzen diozue pleno honi baimena aldaketa hori egiteko, baina orain dela hilabete bat publizitatu zenuten periodiko guztietan. Egongo dira alde daudenak eta egongo dira kontra daudenak eta ikusiko dugu, zein den guzti honen emaitza. Guk esaten duguna da, hori bai dela behin behineko irtenbidea.

NEREA EPELDE ANDREA: Hala da guretzat ere bai, behin behinekoa da.

MARIA EUGENIA ARRIZABALAGA ANDREA: Eta behin behinekotasun hori zenbatekoa izango den nahiko genukeela jakin, hiru urte, edo lau urte edo bost urte edo bi urte. Eta bi urteetarako orduan ea inbertsioaren amortizazioa pixka bat gorantz dihoan. Eta besterik gabe, guk zer esango dugu, ikusiko dugula zein den emaitza.

NEREA EPELDE ANDREA: Guk ere bai.

MARIA EUGENIA ARRIZABALAGA ANDREA: Behin behinekotasun hori horrela izanik, bizpahiru urtetarako behin behinekotasuna baldin bada, haurrak plazan prefabrikatuetan edukitzearena edo plaza prefabrikatuekin okupatuta edukitzearena, beste era batera begiratuta; pentsatzen duguna da eta espero duguna da -eta uste dut hau batzorde batetan ere aipatu dugula, eta lasai, erantzun zenidatela- behin betiko izango den irtenbide hori, lantzen ariko zaretela. Ez Pentsatzen bakarrik, baizik eta dagozkion gestioak egiten, zeren horretarako bizpahiru urte beharko bait dira eta.

ALKATE-LEHENDAKARIA: Gestio horiek dagoeneko egiten ari gara. Beste gauza bat, kreditu aldaketa pleno honi adierazi gabe egin zela esaten duzunean, horrela egin zen, legeztatuta geundelako kreditu aldaketa hori aurrera eramateko. Badakit esango didazula ez duzula dudan jartzen, baina esan egin duzu eta nik erantzun egiten dut. Eta plenoari orain esan zaiola, non aldaketa bat egin nahi dela Bidasoa kaletik Arrangoletara, plenoari bai, baina komisioa orain dela hilabete bat esan zen. Eta publikatu aurretik ere hitzegin zen, beraz jakintun gara guztiok eta alderdi politiko guztiek periodikoetan, egunkarietan publikatu aurretik guk ze intzertzio geneukan bazekiten. PSOE.

SR. EMILIANO CABAÑAS: Hay dos cuestiones.

Empezaré por la que relaciono con lo que anteriormente había dicho Joseba de barracones. Les llamé barracones porque llamarlos barracones, llamarlos módulos, llamarlos contenedores, llamarlos prefabricados, como quieras, no es un edificio, siguen siendo contenedores, barracones, módulos lo que quieras que da igual. Yo dije barracones y no creo que esté mal definido barracones, porque como tal han sido siempre, antes y ahora, ya sean de un material o del otro, por lo tanto no es ningún problema haberlo llamado algo por el cual, se le conoce.

En cuanto a lo de reducir gastos, pues también depende. Porque se adquiere en propiedad algo que ya veremos a ver el uso que tiene en un futuro. Luego también se puede entender que es una inversión a fondo perdido con no sé si dudosa o no, ya lo veremos- tampoco me atrevo a calificarlo ahora, porque no lo sé el tipo de utilidad que tenga- lo que sí es cierto es que necesitan un cuidado, un sitio donde tenerlos porque el deterioro con el tiempo llega y al final lo que sí es cierto es que la inversión en el edificio de la antigua oficina del ayuntamiento es fijo, está ahí y siempre sería recuperable y revalorizable y eso nunca. Desde el momento que se compra, al día siguiente empiezan a perder valor, porque el deterioro es el que es, de ese tipo de llámale, edificación, si te parece mal lo de barracones, que no

tengo ningún problema, por lo tanto, en cuanto a que se reduce el coste es relativo. ¿ Se ha dicho 90 mil €? no sé si está incluido ahí todo tipo de instalaciones.

Vale, 148 mil € el total. Por eso digo que depende mucho de cómo se miren las cosas. Antes teníamos informes positivos y ahora se tienen informes positivos quiere decirse que antes no valían y ahora sí, o ahora sí y antes no ó alrevés. No son tan buenos los unos como los otros, nadie discute los informes. Yo no voy a discutir el informe que en un momento determinado, el técnico de turno decidió que estaba bien y que estaba de acuerdo la normativa y por lo tanto se podía hacer. Si ahora mismo se dice que hay y cumple esos mismos requisitos los cumple, yo no voy a discutir ese informe. No entro, pero sí la ubicación, la profesionalidad y el tipo de edificio. Vuelvo a repetir para que no sienta mal, no es el mismo ni tiene la misma valoración, ni por mucho que se quiera va a servir exactamente igual. Está uno harto de conocer ese tipo de cuestiones. Hubo un tiempo en que se montaron cientos de escuelas de este tipo de edificaciones prefabricadas. Cuando se empezó a tener problemas con ellas, en cuanto se pudo se quitaron. Estoy seguro que si hubieran sido muy buenas - ubicadas en sitios que incluso no estorbaban- no había lugar a tener luego que volver a hacer otra inversión, hacer unas escuelas como es debido y retirar ésas. Con esto pasa lo mismo, la realidad es pues como es, que son decisiones políticas igual que la anterior. Se ha tomado una decisión política y tiene unas consecuencias, adelante con ella, para eso estais gobernando indudablemente. Os lo dije en la comisión y te lo digo ahora, aquí pasa igual, el cambio viene derivado de una decisión política de otorgar esos locales, para otra función, no es otra cosa, no que haya necesidad de tener unos barracones para hacer una escuela de 0 a 3 años. No, simplemente es una decisión política. A mí, no me gusta esa decisión política, porque creo que es equivocada y así lo expongo ni más ni menos.

PILAR ETXABE ANDREA: Digo que no es de 0 a 3 años.

SR. EMILIANO CABAÑAS: De 0 a 3 años es la global, de acuerdo no importa, para todo hay diferencia, más grande ó más pequeña para todo. Pero en fín, la cuestión es, vuelvo a repetir, una decisión política, se trae aquí a pleno y se acabó, adelante. Pero no por eso no vamos a dejar de estar en contra de algo que nos parece equivocado. Y eso es lo que hacemos, dar la opinión de algo que no nos parece lógico, cuando existía una opción que para nuestro entender es mejor opción que la que se plantea ahora.

SRA.CRISTINA FORCADA: Nosotros como grupo político en la legislatura anterior cuando el PNV presentó la propuesta de hacerla en la calle Bidasoa, personalmente y como grupo político, a nosotros no nos hizo mucha gracia aquel sitio. Precisamente por la ubicación y por la imposibilidad que tenía de sacar a los niños fuera del espacio físico que era aquello. Ahora cuando se ha planteado la nueva ubicación, pienso que hay que mirar un poco más adelante y quitarnos los prejuicios de los prefabricados y todas estas cosas. Hay momentos en que hay que tomar decisiones un poco audaces. Se supone que es algo temporal y no sé por nuestra parte no hay ningún problema en que se cambie la ubicación de la guardería. Pensamos que además todo lo que sean equipamientos que están demandados socialmente por el pueblo están más que justificados económicamente.

ANDONI ETXANIZ JNA: Behin eta berriz entzun dugu hemen, umeak mugitu behar izan ditugula beste batzuei lokalak eman dizkiogulako eta lokalak umeentzako ez zeudenez, ba... orain barrakoiak, prefabrikatuak dena delakoak jarri behar ditugula. Lokal horien erabilpena aldatu baldin badugu izan da, hor hartzaindegia egitea egoki iruditzen ez zitzaigulako lehen eta ez zaigulako iruditzen orain. Bertan behar duten parkea edo non egin behar zen ikusirik ba... horrek suposatuko zukeen peatonalizazioa lehendikan ere gaizki dagoen inguru bat trafikoaz hor ordenatzea zaila delako. Lehen ere nahiko lan, peatonalizatzen hasten baldin bagara ba oraindik eta askoz ere okerrago geratuko dira bertako trafikoak eta umeak edukitzeko leku egokia ere ez zitzaigun iruditzen, inondik inora, kotxe artean, karretera artean, hiruki hartan umeak edukitzea ez zitzaigun batere egokia iruditzen. Egia da txostena izan badugu eta nola ez ekartzen dugun txostena ekartzen dugu positiboa delako. Txostena negatiboa izango balitz ba... ez guke gaia aurkeztu ere egingo. Txostenak, lehendikan guk genituen intuizio, ideia, edo gogoetak indartu egiten ditu. Bai ekonomikoki, eta baita ere ematen den soluzioak duen aldi baterako izaerak duen flexibilitatea ere kontuan hartzeko modukoa da. Gaur egun hiru gela jarriko dira baina hurrengo urtean, beste gela bat behar baldin bada inbertsio minimo batekin beste bat jarri daiteke edo bi, jarri behar direnak. Eta denboran zehar ikusiko dugu benetan zeintzuk diren herriaren beharrak. Eta bitartean horretan noski lanean ari garela ba definitiboki behar duen kokalekua bilatuz. Ia nik uste dut, bilatu eta aurkitua badugula ere, eta landuko dugu, nola ez, hartzaindegi definitiboa. Nik uste dut, hori legealdiko proiektuetako bat izan daitekela. Eta nere ustez behintzat orain dagoen lekua egokiagoa eta neretzako ere, ez dakit, bertan ikasi edo eskolara joan nintzelako, bertan ere urte askotan egon direnez ba... neretzako ere xarma berezi bat ere badauka eta neri behintzat pozgarria

iruditzen zait berriz ere plaza horretan umeak jolasean ikustea eta ez kotxe artean.

MARIA EUGENIA ARRIZABALAGA ANDREA: Bi hitz bukatzeko. Izan dezakeen xarma ikusiko dugu, ea zenbaterainoko xarma daukan ikusiko dugu. Eta egia da magultasuna ikaragarria eskeintzen duen kontu bat dela, hain da malgua datorren urtean beste bi behar baldin badira, beste bi ekarriko ditugula eta hurrengoan berriz bost beharko balira bost gehitu daitezkeela eta horrela segi ba... Arrangoleta plaza “cubo”-z betetzen. Eta daukazuen abantaila zein den ? ba... nola ez den inoiz ikusiko Bidasoa kaleko eta ez Amaia plazako hartzaindegi berri polit-polita egin da, inork ezingo duela esan hi! ba... ez zen hain txarra, edo oh! Askozez hobea zen. Hori zuen abantaila da.

MANU ZUBIA JNA: Barkatu, Iñaki, askotan, behin baino gehiagotan entzun diat hemen, kotxe artean ibiliko zirela umeak. Hori lehen ere esan nian, kotxe artean ez zirela inolaz ere ibiliko umeak. Hemen Andonik aipatu du bitan edo hirutan hitz hori, kotxe artean hori. Behin baino gehiagotan komisioetan argitu dugu.

MARIA EUGENIA ARRIZABALAGA ANDREA: Baina erabaki gabe zegoen gauza bat zen, ezta?

ALKATE-LEHENDAKARIA: Horregatik gure kritiketako bat zen, ez zirela 200 mila €bastante gehiago zela, hartzaindegia.

MARIA EUGENIA ARRIZABALAGA ANDREA: Eta Jadarre auzoa birgaitzea askoz gehiago da eta ez dauka zer ikusirik hartzaindegi batekin.

ALAKTE-LEHENDAKARIA: Bai, noski.

MARIA EUGENIA ARRIZABALAGA ANDREA: Barkatu eta orain aipatzen duzula, hori peatonalizatzea edo peatonalizazio itxura haundiagoa ematea gaizki dagoela eta ba... gaizki dagoen horrekin geratu beharko gara eta ez dakit zergatik, baina tira.

MANU ZUBIA JNA: Barkatu, hor gure asmoa zen legealdi honetan edo mandato honetan, Baltasar de Etxabe kale hori dena konpontzea eta hor beste historio batzuk egitea. Orduan ez zen bakarrik lan hau, gure asmoa zen beste estruktura desberdinak egitea, infraestruktura berrikustea.

ALKATE-LEHENDAKARIA: Baina konklusioa da, guzti horrek garestitu egiten zituela 200 mila €horiek. Objektiboa hori da.

MANU ZUBIA JNA: Hirezako bai, neretzako ez.

ALKATE-LEHENDAKARIA: Zuk esango didazu nondik ordaindu behar zen bestela.

MARIA EUGENIA ARRIZABALAGA ANDREA: Iñaki, nola esan daiteke hori, noski garestituko zuela, baina ez ziren izango bi urteetarako barrakoiak edo dena delakoak. Herriko kaleak edozein herriko kale konpontzen duzunean, garesti irtetzen da baina ez dut uste daukanik amortizazio eperik, eta ez dut uste inor kontuak ateratzen hasten denik. Gaizki edo ondo, edo garesti, edo ez den garesti, ez? Edo bai akaso, ez dakit.

ALKATE-LEHENDAKARIA: Hain zuzen ere horregatik, guk ere uste dugu guk hartu dugun erabakia ez dela diru kantidadetan neurtzen, baizik eta inbertsioa bat dela.

MANU ZUBIA JNA: Barkatu, adibidez Koldo Mitxelena badakik non dagoen Donostian, hor bere garaian, kotxeak aurretik pasatzen ziren. Orduan, nik pentsatzen diat gauza bat dela eraikuntza obra eta beste gauza bat aparte inguruan dagoen beste kalea eta hori guztiori ondo jartzea eraikuntzatik desberdina duk. Baina batak bestea eramaten dik, orduan bi inbertsio desberdin dira, baina inbertsio batekin bestea ere konpondu egiten duk.

ALKATE-LEHENDAKARIA: Bai, bai, baina nola entzun dudan, guk proposatutakoa eta guk aukeratutakoa, erabaki politiko bat dela, Emilianok, esaten duen bezala, guk erabakitakoak ematen duen emaitza

askoz ere garestiagoa dela, garbi laga nahi dut. Barkatu ez dela askoz ere garestiagoa, alderantziz baizik, merkeagoa dela, eta ez duela eskatzen horrelako obrarik egiterik. Oker ez baldin banago hura peatonalizatzea ez zen urbanismoko egitasmo bat, edozein kasutan izango zen bertan hartzaindegi bat zihoalako eta Eusko Jaurlaritzak ematen zituen baldintzak kunplitzen ez zituenez aurreko, guztia, peatonalizatu egin behar zelako, eta gero hori nahi da jantzi, esanez, reurbanizatu nahi zela. Baina hura reurbanizatu nahi baldin bada, - gainera hainbeste estudio eta hainbeste programa eskatzen dituzue egin behar dela bonifikazioaren inguruan- haren inguruan, urbanizatu eta peatonalizatu nahi baldin bazen, horren estudioa egin beharko zen, kotxeak nondik joan behar zuten, ibiltariak nondik joan behar zuten eta abar esaten zuena, guzti horrek peatonalizatzea ondorioztatzera eramaten zuena, guzti hori peatonalizatu behar zela esaten zuena, non dago ba?

MARIA EUGENIA ARRIZABALAGA ANDREA: Ez, Jaurlaritzak ez zigun esaten hura peatonalizatu behar zenik, ez zen Jaurlaritzak ezarritako baldintza bat. Egokiago geratzeagatik zen eta kalea bera hobeto geratzeagatik planteatzen zen kontu bat zen. Eta haratago joan nahi baduzu joango gara, baina ez dauka inolako zentzurik. Ez bakarrik Bidasoa kalea, eta tarteko kale guzti horiek, eta barkatu baina, kale horietan dauden espaloiak, fijatu baldin bazarete eta pentsatzen dut baietz - han udaletxea makina bat urtetan egon delako- herrian dauden okerrenetarikoak dira, jendea erori egiten delako eta kontua noski hartzaindegiarekin lotuta bai, baina hirigintza aldetik ere garrantzi handia zuena zen. Eta akaso zuek egunen batean ere egingo duzue.

ALKATE-LEHENDAKARIA: Noski estudioak horrela esaten baldin badigu, noski egingo dugula, bueno bukatzen joango gara.

MANU ZUBIA JNA: Barkatu, baino mobilitadeko ikerketa ere egin zen eta hor ere horrelako gauzak aipatzen zituen.

ALKATE-LEHENDAKARIA: Baino horren inguruan ez zuen ezer esaten, irakurri dut goitik behera eta horren inguruan ez zuen ezer esaten.

MANU ZUBIA JNA: Baina zerbait aipatu, aipatzen zen.

ALKATE-LEHENDAKARIA: Baino ezer ez, konklusio hori ez zen ateratzen estudio hartan.

JOSEBA JOSU AZPIAZU JNA: Nik esan nahi nuen, esaten denean barrakoi horiek - horrela esango dut nik ere - Haurtzaindegi bat egin behar dela eta gero behin betikoa egiten dugunean hori alferrikako gastua dela ez dela horrela. Zeren barrakoi horiek erabili ditzakegu beste gauza baterako, ikusiko dugu zer gauzetarako izango diren edo zertarako. Ez duguna egingo da alferrik galdu, hori, argi eta garbi. Eta lehen esan duzunean kasualidadea dela hor kreditu aldaketa bat egin zela, gutxitu egin zela partida eta kasualidadea kalkulua hori dela, kasualidadea ez da izango alderantziz ere, kalkulatuta zegoela eta gero kreditu aldaketa hori egin zela eta balore hori gutxitu, izan daiteke, baita ere, ez? Zeren kasualidadea ari gara ikusten lehengo urteko inbertsio denak ez direnak ejekutatatu eta agian erabili ditzakegu datorren urterako.

MARIA EUGENIA ARRIZABALAGA ANDREA: Joseba, ados, esan daiteke alderantziz, baina bat baino gehiagotan galdetu izan dut batzordean zenbateko kostua izango duten eta ez didazue esan eta ordurako baldin bazekizuen kreditu aldaketa egin aurretikan minorazioa zenbatekoa behar zuen izan gero dirua geratzekotan ba.. seinale ez zenutela informazio guztia eman nahi batzordean, zuek orduan erabaki nola den gauza, neri berdin zait.

ALKATE-LEHENDAKARIA: Ez, ez, transparenteak izan gara. Guk bagenekiena zen kostua gutxiago zela, ez genekiena zen estimazio zehatza zein zen, hori galdetu zenean. Orain zehatza badakigu zein den, teknikoak hala zehaztu digutelako.

Bozkatzera pasatuko gara, besterik gabe.

ERABAKI ZATIA

2007ko AURREKONTUA:
HAURTZAINDEGIAREN KOKAPEN
ALDAKETA Bozkatzen da.

Aldeko botuak: 7 (3 ANV , 2 EA eta 2 EB-
B/ARALAR)
Aurkako botuak : 6 (4 EAJ eta 2 PSOE)

PARTE RESOLUTIVA

Se vota: PRESUPUESTO 2007: CAMBIO
DE UBICACION GUARDERIA

Votos a favor: 7 (3 ANV, 2 EA y 2 EB-
Aralar)

Votos en contra: 6 (4 PNV y 2 PSOE)

Abstentzioak: 0

Abstenciones: 0

ERABAKI DA:

2007ko
HAURTZAINDEGIAREN
ALDAKETA ONARTZEA.

AURREKONTUA:
KOKAPEN

SE ACUERDA:

Aprobar EL CAMBIO DE
UBICACIÓN DE LA GUARDERIA
PRESUPUESTO 2007.

4.- HERRITARREN PARTAIDETZA

ZUMAIAKO UDAL PLANGINTZAKO AHOLKU BATZORDEAREN ERREGLAMENDUA HASERAKO IZAERAZ ONARTZEA, BIDEZKO BADA.

4.-PARTICIPACION CIUDADANA:

APROBACION INICIAL SI PROCEDE, DEL REGLAMENTO DEL CONSEJO ASESOR DE PLANEAMIENTO MUNICIPAL DE ZUMAIA.

ALKATE-LEHENDAKARIA: Guzti honen berri eman zen dagoeneko Herritarren partaidetzako batzordean. Bertako diktamena ere hemen daukagu.

Adierazten denez, Eusko Jaurlaritzako ekainak 30eko Lurzoruaren eta Hirigintzaren 2/2006 legeak dioena beteaz, Herritarren Partaidetza Batzordeak Zumaiako Udal Plangintzako aholku batzordearen erreglamendua aztertu du eta zenbait ataletan emendakinak onartu bilerako aktan jasotzen direnak.

Ondorioz, Herritarren Partaidetza Batzordeak erabaki du EA eta ANVren aldeko botuekin, eta EAJren abstentzioarekin, Udalbatzaren Osoko Bilkurara eramatea, han Toki Jaurbidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 22. artikulua dioen bezala erabaki dadin, ondorengo PROPOSAMENA:

1.- Zumaiako Udal Plangintzako aholku batzordearen erreglamendua hasierako izaeraz onartzea.

2.-Hilabetez jendaurrean jartzea; horretarako, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta probintzian gehien saltzen den egunkarietako batean iragarriko da. Tarte horretan, espedientea aztertu nahi duen edonoren esku egongo da, eta alegazioak egiteko aukera izango da.

Erreklamazio edo iradokizunik aurkezten ez bada, ordura arte behin-behineko izan den erabakia behin betikotzat hartuko da.

Hau dagoeneko partehartzeko batzordean egon zaretenak badakizue zein izan den bertan planteatu den eta eraman den batzordearen osaketa. Lurzoruaren legeak jarritakoaren inguruko artikulua asko daude jasota erreglamenduan, batzordea osatzeko eta bertako funtzionamendua, gehiengoa, gutxiengoa, etbr.. arautzen dituenak. Baina seguru asko garrantzitsuena gure aldetik, udaletxe aldetik batzordea zein pertsonak osatuko zuten zen. Bi batzorde egin dira eta bi batzordetan horri buruz diskutitu ondoren, irakurritako ebazpen hau onartu zen. Irakurritako aldeko eta abstentzioko botu horiekin eta hori da gaur hemen onartu behar duguna. Zerbait esatekorik? PNVk ezer ez. PSOEk?

SR. EMILIANO CABAÑAS: El dictamen no tiene mayor problema. La composición sí. Ver si se puede estar de acuerdo o no, si se puede cambiar. Porque el dictamen en sí, que se apruebe el Consejo Asesor de Planeamiento Municipal, es una obligación, o sea, no se puede decir que no, porque está recogido en Ley, por lo tanto, si lo queremos poner en marcha lo tenemos que aprobar. Ahora, qué tipo de Consejo Asesor es el que aprobamos con esto, esto es lo que tenía que saberse, no el dictamen porque el dictamen no me dice nada.

ALKATE-LEHENDAKARIA: En la comisión, en la preceptiva comisión que fue hace dos semanas - si mal no recuerdo- para la convocatoria de aquella comisión, se mandó la proposición. Me imagino que lo tendrás tanto en el e-mail como en el sobre que se mandó por correo también. Pero no sé, si tú Miren tienes aquí, se puede leer por lo menos la composición cual es, de todas formas ya digo que hace dos semanas o así se repartió.

SR. EMILIANO CABAÑAS: Sí, que no te digo que no, lo que pasa que coincidió cuando no tenía ni ordenador ni nada y muy probablemente fuera en esa fecha, por eso lo desconozco es que si lo supiera no lo preguntaba, eso sería absurdo por mi parte.

IDAZKARIA: El Presidente del Consejo es el Sr. Alcalde y luego hay vocales – concejales repartidos del siguiente modo:

Un concejal será el de medio ambiente y luego de cada partido político que no estén incluidos los partidos del alcalde y del concejal de medio ambiente, pues habrá otro representante y aparte habrá representantes de asociaciones. Una serie de asociaciones del pueblo que en total serían

dieciséis. Esta fue la primera propuesta que luego se modificó a raíz de que se debatió en comisión. ¿Cuáles son? Serían:

Un vocal de una asociación de vecinos de Zumaia.

Un vocal de una asociación ecologista o ambientalista.

Dos vocales representantes de la comunidad educativa de Zumaia.

Un vocal en representación de asociaciones de comerciantes minoristas.

Un vocal en representación de asociaciones empresariales.

Un vocal en representación del sector agrario.

Un vocal en representación de sindicatos de carácter general.

Otro de asociación de discapacitados.

Otro representante de asociaciones de mujeres y

Un representante por cada núcleo histórico de Zumaia, que cambió en vez de ser cuatro - porque núcleos históricos se entendía por Oikia, Artadi, Narrondo y Estación - y a raíz de que se debatió en la comisión, quedó en que solamente sería un único representante de los barrios y que aglutinaría a los cuatro.

También habría un vocal en representación de asociaciones de jóvenes y un vocal en representación de entidades de carácter cultural, deportivo, social. Esto también se cambió, solamente serían de carácter cultural y deportivo porque se entendía que ya había bastante representación social.

Luego surgió el tema de las asociaciones que no estaban legalmente constituidas que había que incluir una cláusula adicional, para posibilitarles el que se constituyesen legalmente.

Lo de los cuatro vocales en representación de los barrios ya hemos comentado que se reduciría a uno y lo de la representación social también. Pues esto es todo.

MARIA EUGENIA ARRIZABALAGA ANDREA: Aipatu duzun zerrenda, batzordean hitzegin zena da gutxi gora behera. Ez dakidana da, publikatuko den akordioa,- akordioa, aurrera baldin badihoa - boletinera zehaztuta joango den edo zerrenda bere horretan izango den. Zeren ni ere gelditu nintzen inpresioarekin izan zen, hitzegin genuela, baina azkenean ez ginela irten handik paper batekin.

Eta bestaldetik aipatu zen beste arazoa, ez da bakarrikan izendatzea “un colectivo de mujeres” o “un sindicato” o “uno en representación de las asociaciones vecinales”, kontua da, zein dira “las asociaciones vecinales” o zein barrioetakoak edo zein sindikatu edo zein kirol edo zein kultur elkarte eta nola aukeratzeko diren ordezkari horiek, txandaka edo nola, edo betirako. Nik uste dut,- ez dakit beste lekuetan nola egiten duten, egia esan, jardun nuen bere egunen begiratzen baina ez sakonean- beharko duela zehaztaperen aurre-lan bat, aurretikako lan bat.

ALKATE-LEHENDAKARIA: Nik uste dut batzordean hori hitzegin zela eta erabaki zela, legez konstituituta edo eratuta ez badaude erakunde horiek, “las asociaciones vecinales” eta hor aipatzen diren horiek, kontseju bera izango zela, batzorde aholkulari bera izango zela, ahalmena duena erabakitzeko arlo horietatik, hor azaltzen diren arlo horietatik zein izango litzakeen pertsonarik egokiena etorriko litzatekeena, ahalmenduta bera egongo litzatekeela.

MARIA EUGENIA ARRIZABALAGA ANDREA: Baina aholku batzorde berak nola aukeratuko du aholku batzordeko partaide zein izango den? Partaideak daudela aukeratu beharko dute zein partaide diren. Zuk eratzen duzu batzorde bat eta batzorde hori eratuta aukeratzen ditu bere kideak, baina horretarako kideak egon behar dira beste kide batzuk aukeratzeko?

ALKATE-LEHENDAKARIA: Baina minimo, kide minimo batzuk badaude. Hori eztabaidatu genuen aurreko batzordean, kide minimo batzuz osatuko litzateke batzordea. Kide horiek izango lirateke, azaltzen ez diren, hutsik geratzen diren ordezkaritza horietatik erabakiko luketenak zein etorri. Adibidez, denok daukagu buruan nekazaritza arlotik, berez ez baldin badago elkarterik eratuta legez, pertsona batzuen izenak, udaletxeak beraiekin hartu eman zuzena beti izan duelako. Arlo horiei buruz hitzegiteko aholkularitza batzorde berak erabakiko lukeela pertsona hori den egokiena nahiz eta eratuta ez egon, pertsona hori izan dadila aholkularitza batzordeko kide.

SR. EMILIANO CABAÑAS: Una vez explicado por la secretaria, lo único que me parece que quizás que no sea tan grande en número sea más positivo, sea más negativo que positivo es la única cosa. A mí el que intervengan toda serie de asociación y demás no me parece mal todo lo contrario, porque no estamos aquí hablando de técnicos, sino de participación. Sino habría que exigir calidad técnica a cada uno y lo primero que no deberíamos de estar seríamos nosotros.

ALKATE-LEHENDAKARIA: Perdona, Emiliano, digo que ya se habló de ése tema en la Comisión. También de hecho en su día se pasó como modelo, los modelos de Legazpia y de Zarautz. Se entendía que el de Legazpia se quedaba corto en sí y se decía que eran pocos, y sin embargo el de Zarautz nos pareció que era con una composición como que tomaba parte

demasiada gente y al final y después de enumerar y después de hablar de qué gente podía participar, - sabiendo la realidad de Zumaia cual es-, al final nos ha dado un número mayor del que esperábamos. Pero bueno, en aras de garantizar una mayor participación de todo el pueblo de Zumaia, hemos considerado que mejor pecar de exceso que de lo contrario. Con todos los defectos que eso conlleva que también somos conscientes, pero bueno.

SR. EMILIANO CABAÑAS: El único inconveniente sería el número nada más. Porque lógicamente un Consejo Asesor nos tiene que servir, sino para que montarlo y si por el número se hace inoperante o se hace muy poco operativo, lo único que puede llevar a cabo es retrasar, los proyectos. Porque no deja de ser un asesoramiento, no una decisión determinada. Es el único miedo que me da, que el número nos pueda traer el problema, del descontrol de éste propio órgano, nada más.

MANU ZUBIA JNA: Bai, barkatu, nere galdera da, batzorde hori osatzen denean, adibidez, lehen hasieran aipatu dudana, E.B-Aralar azaltzen da talde bat bezala eta zenbat ordezkari ? Ez dakit nik, konposaketa guzti horiek nola gelditzen diren.

ALKATE- LEHENDAKARIA: Nik Manu uste dut geratu garela datorren plenorako zehaztuta ekarriko dutela. Hala eta guztiz ere ulertzen dudana da eta gure intenzioa hala izan da, lehen ere aipatu dugu, legealdi honen eraketako plenoan geratu ginen, batzordeetako banatuko zirela talde propio bat izango balirake bezala. Batzorde desberdinetan dago bietatik bat eta suposatzen dut honetarako ere, eta horrela ulertu dugu guk, bat etorriko litzatekeela. Hala eta guztiz ere nola geratu garen datorren plenoan guzti hori zehaztuko dugula, datorren plenorako zehaztuko dugu. Botatzera pasatuko gara. PNV?

MARIA EUGENIA ARRIZABALAGA ANDREA: Gure abstentzioa eta beti edukiko dugu denbora publikatzen denean sakonean aztertzeko asuntua, alegazio bat balego ere, hilabeteko epea legoke.

ALKATE-LEHENDAKARIA: Hori da.

ERABAKI ZATIA

ZUMAIAKO UDAL PLANGINTZAKO AHOLKU BATZORDEAREN ERREGLAMENDUA HASERAKO IZAERAZ ONARTZEA, BIDEZKO BADA.

Aldeko botuak: 9 (3 ANV , 2 EA , 2 PSOE eta 2 EB-B/ARALAR)

Aurkako botuak : 0

Abstentzioak: 4 (EAJ)

ERABAKI DA:

1.- Zumaiako Udal Plangintzako aholku batzordearen erreglamendua hasierako izaeraz onartzea.

2.- Hogeitamar egunez jendaurrean jartzea; horretarako, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean iragarriko da. Tarte horretan, espedientea aztertu nahi duen edonoren esku egongo da, eta alegazioak egiteko aukera izango da.

Erreklamazio edo iradokizunik aurkezten ez bada, ordura arte behin-behineko izan den erabakia behin betikotzat hartuko da.

5.-MOZIOAK:

5.1.- ANV-REN MOZIOA: NAZIO BAT, SELEKZIO BAT.

5.-MOCIONES:

5.1.-MOCION ANV:UNA NACION,UNA SELECCION.

ALKATE LEHENDAKARIA: Dagoeneko bozeramaileen batzordean uste dut, nahiko eztabaidatu ditugula mozio guztiak. Hala eta guztiz ere pentsatzen dut eztabaidatzeko edo zerbait esateko nahia izango duela bakoitzak. Ea denak nahiko laburrak izaten garen, pleno hau gehiegi ez luzatzeko.

Mozio hau da, aurreko plenoan, baztertuta geratu zen mozio bat, ea posible zen elkartasun batera edo adostasuna atera irizteko, bozeraemaileen batzordea izan dugu. Ez da posible izan eta testua bere horretan ekartzen da pleno aretora.

PARTE RESOLUTIVA

APROBACION INICIAL SI PROCEDE, DEL REGLAMENTO DEL CONSEJO ASESOR DE PLANEAMIENTO MUNICIPAL DE ZUMAIA.

Votos a favor: 9 (3 ANV, 2 EA, 2 PSOE y 2 EB-Aralar)

Votos en contra: 0

Abstenciones: 4 (PNV)

SE ACUERDA:

1.- Aprobar inicialmente, el Reglamento del Consejo Asesor de Planeamiento de Zumaia.

2.- Exponer al público por un período de treinta días, contando a partir de la fecha de publicación en el BOG, con objeto de que se puedan presentar alegaciones y reclamaciones.

En caso de que no se presenten alegaciones ni reclamaciones el acuerdo se daría por definitivamente aprobado.

Ez dakit irakurri behar dugun, nik uste dut luzeegia dela irakurtzea, nik uste dut dagoeneko denak irakurrita daukagula. Eta besterik gabe norbaitek zerbait esan nahi baldin badu honen inguruan ? Eztabaida bertan ere, sortuko da honen inguruko hika-mika, pentsatzen dut. PNVk zerbait esan nahi du?

MARIA EUGENIA ARRIZABALAGA ANDREA: Bai. Bi aldiz planteatu dugu alternatiba bat, oso alternatiba txikia, oso aldaketa txikia sartzen duena eta azkenean erabaki duzuen da, mozioa bere horretan bozkatzea. Zer esango dugu, sarrerarekin ados gaude, aurrengo puntuarekin ados gaude, bigarren puntuarekin ados gaude, hirugarren puntuarekin ados gaude, bosgarren puntuarekin ados gaude eta laugarrenean sartzen dugun aldaketa ondorengoa da: zentzu honetan herritarrei dei egiten zaie abenduaren 29an Bilbon Euskal Herria Nazio Bat, Selektzio Bat, lelopean antolatu diren ekimenterantz parte hartzeko, egun hori Euskal Selektzioaren ofizialtasunaren aldeko aldarrikapenaren eguna izan dadin. Gu abstenitu egingo gara, ez dakit, jada botua anunziatzeko momentua den, baina azken finean, aldaketa hori sartu izan bazen onartuko genuen.

ALKATE-LEHENDAKARIA: PSOE.

SR. EMILIANO CABAÑAS: Nosotros, hemos dicho que no vamos a entrar a debatir este tipo de cuestiones en el pleno. Ha sido debatido ya en la comisión de portavoces, estabamos en contra entonces y estamos en contra ahora, sea cual sea la redacción.

ALKATE-LEHENDAKARIA: Aralar.

XABIER OLAIZOLA JNA: Alde nago. Ez daukat beste ezer.

ALKATE-LEHENDAKARIA: Ezker Batua.

SRA. CRISTINA FORCADA: Nosotros nos abstenemos. Como Ezker Batua, no entramos en el concepto de moción, y pensamos que todos los eventos deportivos son representaciones de Sociedades no de naciones, por lo tanto, nos abstenemos.

ALKAT-LEHENDAKARIA: ANV.

ANDONI ETXANIZ JNA: Guk nola ez, alde bozkatuko dugu, ESAITek aurkeztu duen mozio hau. PNVk dio, aldaketa txikia izango litzatekeela, baina gure ustez aldaketa handia da. Aldaketa da, ESAITek aukezten duen mozioari bozka eman, edo PNVk aurkeztu duen beste bigarren mozio bati bozka eman. ESAITk honera ekarri zuen bere mozioa bere osotasunean onartu genezan edo ez. Eta kontua da, hona ekarri zen bezalaxe beste udaletxe batzuetara ere eramanez dutela. Getarian adibidez, PNVk Gobernatzen du eta han aho batez onartu zen. Zestoan ere PNVk badauka bere zinegotzi kopuru polita eta han ere aho batez onartu zen. Azpeitian ere nola ez onartu zen eta han ere PNVk aldeko bozka eman zuen. Zumaian aldiz abstenitu egiten da, hainbat buru, hainbat aburu edo ez? Gaur hori hemen askotan entzuten ari gara zinegotzi bakoitza mundu bat dela eta alderdi berean egonagatik ez duela zertan bozka berdina eman behar. Hemen beste adibide bat, nik pentsatzen nuen, Zestoan, Getarian, Azpeitian eta Zumaian Euskal Herriko Selekzioaren inguruan eta ESAITen inguruan ideia amankomunago bat edukiko genuela, baina itxuran badirudi ezetz.

MARIA EUGENIA ARRIZABALAGA ANDREA: Niri iruditzen zait, asko begiratzen duzuela inguruetako herrietan zer gertatzen den, akaso hori egin eta beste gainontzeko guztiak egiteko haina denbora daukazuelako. Hainbat buru, hainbat aburu, edo hainbat herri hainbat aburu, edo nahi duzun bezala. Eta berriz diot, bada ez bada ere, sarrerarekin ados gaude, aurrengo puntuarekin ados, bigarrenarekin ados, hirugarrenarekin ados, bosgarrenarekin ados, eta aldaketa txiki bat sartzen dugu, ñabardura bat, guretzat bere garrantzia dueña. Eta ez dut uste nahiz eta zuk kontrakoa esan, Zumaiako espezifikidade bat denik, ezta? Ez dut uste. Laugarren puntuaren, jendea gonbidatzen dugu Bilbora joateko eta Euskal Herria Nazio Bat, Selekzio Bat, lelopean antolatuko diren ekintzetan parte hartzera joateko gonbita, besterik gabe.

Galdera bat honetaz ari garenez eta bosgarren puntuarekin bat egiten dugularik ere. Udalbatza honek, abenduaren 29an, herritarrek, bilboraino aldarrikapena eramanez dezaten erraztuko du eta erabaki honen berri herritarrei jakinaraziko die. Aurrekoan honetaz hitzegin genuenean, bozeramaile batzordean esan nuen, - nola ez ginen gu ados egongo bosgarren puntu horrekin-, azkenengo urteetan,- oker ez baldin banago-, futboleko beteranoak edo antolatzen dituzten autobusei dirulaguntzak eman izan baldin badizkiegu, eta ez dakit informazio okerra edo zuzena den,

baina zuzena baldin bada, pixkat harritzen nauena da, zuek ESAITek aurkeztutako mozio hau bere osotasunean horrela potolo onartu eta gero lau autobus bidaltzeko diru laguntzak eskatu eta bietarako bakarrik ematea.

ALKATE-LEHENDAKARIA: Ahal dela eta eskatzen baldin badute, denei emango zaie, noski, denei emango zaiela eskatzen duten denei, Euskal Selektzioa ikusteko.

MARIA EUGENIA ARRIZABALAGA ANDREA: Laurentzat eskatu dute eta guk dakigula birentzat bakarrik eman diozue. Ulertu behar dugu ontzat ematen dela laurentzat ematea? Gu pozik.

ALKATE LEHENDAKARIA: Nik zehazki ez dakit. Ez dakit, zeinek dakien honi buruzko berria, Pili zuk jakingo duzu nik baino hobeto.

PILAR ETXABE ANDREA: Bai, nik badakit. Hasieran bi autobusentzako dirulaguntzak eskatu ziren. Eta autobusaren erdia ordainduko genuenela adierazi zen eta orduan esan zuten, bi autobusen prezioan, lau joan zirela. Jendeak erdia ordainduko du, hori besterik ez. Denei ordaintzeko haina diru ez zegoelako. Hainbeste diru ez zegoen.

ALKATE-LEHENDAKARIA: Hala eta guztiz ere anekdota moduan, nola aipatu duzun nahiko denbora badaukagula ikusteko beste herrietan zer egiten duten,edo ez duten ikusteko - Andoniri erantzunaz-, anekdota moduan, oraindik ere gogoratzen naiz, ni Xabier Olaizola eserita dagoen tokian negoziarean, zenbait aldiz entzun behar izan nuen, Oiartzunen, Hernanin, ez dakit non, Eusko Alkartasunak zer gauza egiten zituen, eta ematen nuen erantzuna zen, gaur egun zuek ematen duzuen erantzun bera. Eta gauza harrigarriak dira, baina horrelako gauzak gertatzen dira.

MARIA EUGENIA ARRIZABALAGA ANDREA: Zer uste duzu, denok ikasten dugu elkarrengandik.

ALKATE LEHENDAKARIA: Den-denok. Hori esan da, hala eta guztiz ere Ezker Batuari bai nahiko nioke gauza bat esan. Aipatu du berari iruditzen zaiola, gizarte talde ordezkariak direla eta ez hainbeste nazio ordezkariak. Nik nire ikuspuntu abertzaletik pentsatzen dut, - abertzale

sentitzen garen beste guztiok ere, ikuspuntu berdina edukiko dugula, hain zuzen ere taldearen onarpena daukagula, gu zer garenaren intentzioa daukagulako, badakigulako zer garen, taldearen sentimentu bat daukagulako,- atxekitzen garela herri bati eta talde horri, eta guretzat talde hori eta herri hori da Nazio Bat eta da Euskal Herria. Kasu horretan esan nahi dut zure argumentuari jarraiki, gu ere, taldearen sentimentu bat adierazten ari garela, nazio bat aldarrikatzean. Besterik gabe, bozkatzera pasako gara.

ERABAKI ZATIA

PARTE RESOLUTIVA

ANV-REN MOZIOA: NAZIO BAT, SELEKZIO BAT.

MOCION ANV:UNA NACION,UNA SELECCION.

Aldeko botuak: 6 (3 ANV , 2 EA eta 1 ARALAR)

Aurkako botuak : 2 (PSOE)

Abstentzioak: 5 (4 EAJ eta 1 EB)

Votos a favor: 6 (3 ANV, 2 EA y 1 Aralar)

Votos en contra: 2 (PSOE)

Abstenciones: 5 (PNV y 1 EB)

ERABAKI DA:

ANVek aurkeztutako mozioa, NAZIO BAT SELEKZIO BAT onartzea.

SE ACUERDA:

Aprobar la moción presentada por ANV: UNA NACION UNA SELECCIÓN.

MARIA EUGENIA ARRIZABALAGA ANDREA: Espero dugu, lau autobusentzat dirulaguntza ematea.

ALKATE-LEHENDAKARIA: Saiatuko gara, ahal dugun neurrian saiatuko gara, ea zenbat diru dagoen, baina saiatuko gara, bai. Orain hiru mozio daude gai berdinen inguruan.

5.2.- ANV-REN MOZIOA:EUSKAL HERRIAREN ESKUBIDEEN ALDE, EGITASMO POLITIKO GUZTIEI AUKERA DEMOKRATIKOA, HERRI GISA ERANTZUTEKO GARAIA DA.

5.2.- MOCION ANV:A FAVOR DE LOS DERECHOS DE EUSKAL HERRIA, CONDICIONES DEMOCRATICAS PARA TODOS LOS

PROYECTOS POLITICOS, ES HORA DE RESPONDER COMO PUEBLO.

ALKATE-LEHENDAKARIA: Mozioa, ANV-k jarri duenez, Andoni.

ANDONI ETXANIZ JNA: ANV-k sartu du bai, baino aurkeztu eta idatzi auzipetuek egin dute, plataformako kideek 18/98ko kideek, eta irakurri behar dudana hau da:

EUSKAL HERRIAREN ESKUBIDEEN ALDE, EGITASMO POLITIKO GUZTIEI AUKERA DEMOKRATIKOA, HERRI GISA ERANTZUTEKO GARAIA DA.

55 auziperatu, 46 atxilotze agindu, 500dik gora espetxe urte. 18/98ko epaiak herri honen eskubideen ukazioan sakondu eta Euskal Herriaren eraikuntzaren alde lanean ari diren herritar eta kolektiboak kriminalizatzeko oinarri berrituak ezarri ditu. Ez da urrats isolatua, urte luzez Euskal Herriaren independentzia bultzatzen duen mugimendu politikoaren aurkako jazarpenaren segida da. Euskal herritarren eskubide zibil eta politikoaren aurkako eraso estrukturala dago horren oinarrian, gero eta talde edo jarduera gehiago bere baitan biltzen duena. Gazteen aurkako epaiketa eta zigorra hortxe dago eta beste batzuk hasiko dira datozen hilabeteotan (Udalbiltza, Egunkaria, GGAA-Askatasuna, Batasuna) eta etorriko direnak.

Guzti honek estrategia jakin bati erantzuten dio, espainiar Estatuak, PSOEko Gobernuak, Euskal Herriaren eraikuntzako zutabe nagusiak kolpatzen ari da, konponbide demokratikoari ateak itxi eta independentziaren aldeko hautua kriminalizatzen.

Argi eta garbi esan dezagun. Ez dago demokraziarik, ez dago justiziarik. Gaur eta hemen espainiar Estatuak, PSOEko Gobernuak, herri honi eskaintza bakarra egiten dio: errepresioa eta Konstituzioa. Gaur eta hemen Konstituzioa inposatzen zaigu, Euskal Herria ukatuz, euskal herritarren eskubideak urratuz, gure etorkizuna libreki erabakitzeko eskubideari ateak itxiz. Gaur eta hemen, Euskal Herriaren eskubideen alde lan egiten dueri orori, gatazkaren konponbide demokratikoaren alde lan egiten duen orori, herri honentzako independentzia nahi duen orori errepresioa ezartzen zaio.

Hori da PSOEren estrategia eta helburu jakina du, herri honi iruzur berri bat ezarri nahi dio. Gatazka luzatuko duen iruzurra, gatazkaren sorburu den ukazio marko hau indartzea duelako helburu. Gatazkaren konponbideari ateak ixtea bilatzen duen iruzurra, independentziari ateak itxita euskal herritarroi aukera politiko guztien artean gure etorkizuna erabakitzeko eskubidea ukatzen digulako.

18/98ko sumarioa, epaiketa eta zigorra ez zen posible izango espainiar Estatuak PNVren laguntza izan ez balu, eta egun PNVren laguntza ezinbestekoa zaio PSOERI herri honi iruzur berria ezartzeko. Orain 30 urte gertatu bezala Euskal Herria Espainiako zati izan dadin egiten ari da PNV lan. Hori da PSOEk PNVrekin batera herri honi ezarri nahi dion iruzurra eta horretarako kolpatzen du Euskal Herriaren eskubideen alde lan egiten duen oro, independentismoa jokaleku politikotik atera nahi du iruzur berna ezarri asmoz.

Une erabakiorra bizi dugu, aldaketa politikoaren ataria izan daitekena. Euskal Herriak ez du iruzur zahar berri bat onartuko, Euskal Herriak konponbide demokratikoa behar du. Eta horretara goaz, konponbideari ateak irekitzera, herri honek egitasmo politiko guztien artean, independentzia barne, erabakitzeko eskubidea errespetatua eta bermatua izan dezan.

18/98ko epaia zein Euskal Herriaren aurkako eraso orokorrari behar bezalako erantzuna emateko garaia da. Erasoan aurrean erantzun eta Euskal Herriaren eskubideen alde lan egiten jarraituko dugu. Eta hori da euskal herritar orori zabaltzen diogun deia.

Aipatu guztia kontutan hartuta honako mozioa aurkezten dugu udal osoko bilkurak eztabaida eta onar dezan,

1. Udal honek irmoki salatzen du 18/98ko epaia eta atzean dagoen Euskal Herriaren aurkako eraso. Espainiar Estatuak, epai honen bitartez, Euskal Herriaren eraikuntzaren alde lanean ari diren herritar eta kolektiboak kriminalizatzen ditu, Euskal Herriaren independentzia bultzatzen duen mugimendu politikoa jazartzen du. Independentismoa jokaleku politikotik atera nahi du herri honi iruzurra ezarri asmoz.
2. Udal honek argi adierazi nahi du: Espainiar estatuan ez dago demokraziarik ezta Euskal Herriarentzako etorkizunik ere. Espainiar estatuak bere Konstituzioa eta salbuespen legedia inposatzen du Euskal Herria ukatzeko, konponbide demokratikoari ezetz esateko, herri honen eskubideei ateak ixteko.
3. Udal honek konponbide demokratikoa aldarrikatzen du, euskal herritarrok egitasmo politiko guztien artean bere etorkizuna libreki erabakitzeko eskubidean oinarrituko den konponbidea, hain zuzen ere. Hortaz, udal honek ez du onartuko herri honi iruzurrik inposatzea.
4. Udal honek bat egiten du Euskal Herriaren eskubideen alde lan egiteagatik 18/98 sumarioan auziperatu eta zigortuak izan diren gizon emakurue guztiekin, eta elkartasuna zein babes osoa agertzen die.
5. Udal honek 18/98ko epaia eta Euskal Herriaren aurkako etengabeko erasoari erantzuteko antolatuko diren mobilizazio guztiekin bat egin eta horietan parte hartzeko deia luzatzen die herritarrei.

6. Udal honek Euskal Herriaren eskubideen alde lan egiten jarraitzeko deiarekin bat egin eta horretara animatzen ditu udalerriko talde, kolektibo eta herritar oro.

7. Onartutakoaren berri emango zaio herritar orori zein komunikabideei.

Hau izan da aurkeztu zaigun mozioa eta nola ez, hau da guk onartua izatea nahiko genukeen mozioa. Nahi izan ezker goizeko ordubiak arte egon gaitezke hitzegiten eta ez gara inongo akordioetara iritsiko eta bakoitzak bere irakurketa politikoa egingo du. Baina nik gogorarazi nahi dut mozioa dela adostu beharko genukeena, adosteko kapazidaderik badugu behintzat eta mozioa dela bozkatu behar duguna.

MARIA EUGENIA ARRIZABALAGA ANDREA: Barkatu ez dakit ondo ulertu dizudan, mozio hau bakarrik dela bozkatu beharko genukeena ?

Nik uste dut mozioa dela bere osotasunean, oraintxe irakurri diguzun erretolika luze hori eta guk irakurri dugunean, dexente gogorra iruditu zaiguna. Horrela izanik, idatziz ekarri dugu, noski gure erantzuna askoz laburragoa, baina neurri batetan baita gogora nahiko genukeena:

18/98 sumarioaren inguruan geure mozioa aurkeztu dugu eta mozio horretan ezbairik gabe azaltzen ditugu gure iritzi eta salaketak.

ANVk aurkezten digun mozioak berriz, 18/98 makrosumarioaren aitzakitan irizurra hitza du ardatz eta letra beltzez azpimarratzen duen bezala, beste behin ere EAJ du etsai, azken 30 urteetako iruzurra leporatzen digu ANVk irakurritakoak. Iruzurra? Guk bestelako iritzia dugu, azken 30 urteetan gaur bezala iruzurti Ezker abertzalea nahi duen izenarekin, konponbideak eta eskubideak ahotan eta zoritxarrez gaur beti bezala biolentziaren zurrunbiloan gatibatuta, nahigabea sufritzen eta nahigabea sortzen, iruzurti garelako leporatzen digu, kolaboratzaile, ezker abertzaleak betiko lepotik burua, irainak gogotik gure aurka, prepotenteak izanik beraien inpotetziaren igargarri geratzen diren hitzak.

ALKATE-LEHENDAKARIA: PSOE

SR. EMILIANO CABAÑAS: Hay tres, no sé la que va a salir. Hago mi argumentación que te vale para las tres para que no me preguntes más. No sé la que va a salir ni tampoco me importa mucho. Estamos totalmente en contra de la primera letra a la última de alguna de ellas. Otras podríamos asumir algún párrafo pero todas, todas, se olvidan, - aunque la vuestra ponga derechos humanos que es la más cercana en ese sentido-, las demás

todas se olvidan realmente de lo que pretenden decir de los derechos humanos, salvo lo suyo, claro. Los de los demás son pisoteados y no hay ningún problema. Cuanto más se pisoteen mejor. Sí eso es lo que se pretende, y se busca el apoyo de los demás, pues comprenderás que eso es del todo absurdo aparte de imposible. No cabría decir más que con todo el cariño del mundo, el desprecio más sutil a lo que pone en algunas de ellas.

XABIER OLAIZOLA JNA: Nik esan nahi dut, hemen errua botatzen zaiela batzuei, eta ez gaudela ados. Eskatu dut lehenago bozeramaileen batzordean hori kendu ezkeror Aralarrek baietzko botua emango liokeela mozio honi. Beste denean uste dut ados gaudela, baino hori kentzen ez bada abstenitu egingo gara.

ALKATE-LEHENDAKARIA: Betiko kontua da eta kontu zaharra. Urteetan zoritxarrez herri honi gertatzen zaion edo gertatzen ari diren ondorio zailak, zorionez azken urtetan, guzti honetan aktore printzipalak garen alderdi politikoetan gauden heinean, foro asko sortu dira Nazio eztabaidagunea adibide gisa, eta iruditzen zaigu hori dela bidea jarraitu behar duguna eta orain inoiz baino gehiago bide horiei heldu behar diegula. Zoritxarrez, baita ere azken urteetan 80. hamarkadan ez bezala botere judizialetik horrelako izaera edo kutsu zeharo politikoak dituzten hainbat erabaki hartzen dira. Tartean dago egunkarien itxierak, tartean dago baita ere 18/98 sumarioa, tartean dago alderdi politiko baten ejekutiba guztia kartzelan sartu izana eta guzti horrek erakusten du herri honetan demokraziarik ez dagoela edo nahigabe asko dituela. Guzti horiek dira salagarriak eta guzti horiek demostratzen dutena da herri honek edo herri hau jasaten ari dela gatazka politiko bat eta gatazka politiko horri irtenbidea emango dioten bideak dira benetan jorratu behar ditugunak. Gaitzespenak eta horrelako gauza linguistiko eta semantikoak albo batera utzi, nahiz eta horiek ere garrantzitsuak direlarik gure ustez ere, eta benetan ekin behar diogunari da, guztien artean eseri, hitzegin eta elkarguneko foro gehiago sortu daitezela. Gaur inoiz baino gehiago eta honen inguruan, hauek, espresio hauek, gatazka politikoaren ondorioetako batzuk besterik ez direlako esaten dugu, gure ustez ANV-k ekarri duen mozio hau gatazka politiko horren inguruan beste ondorio batzuk ere badaudela eta zentzu horretan aipatzekotan guztiak aipatu beharko liratekeela izan ere errua ez dugulako uste PNVk edo PSOEk izatekotan bakarrik dutenik, guk ere, gu, alderdi garen heinean, gureak izan ditzakegu, baina ezker abertzaleak ere bereak izan ditzake. Zentzu horretan uste dugu, kojo geratzen dela, zerbait gehiago gehitu beharko litzatekeela. Nahiz eta noski gertatu dena gertatuta eta hemen salatzen dena jakin da zer den, ez gaude noski ezta gutxigorik

ere, hemen adierazi nahi den horren kontra. Guztiz alderantziz eta bozeramaileen batzordean aipatu dugun bezala, bateragarri edo osagarri izango litzatekeen beste hainbat esaldi barneratu beharko lirateke ANVk aurkeztu digun esaldi horretan eta horregatik, guk gure mozioa aukeztu genuen, helburu horrekin. Andoni.

ANDONI ETXANIZ JNA: Neri behintzat, harridura sortzen didate entzun behar ditugun hitz batzuk. Esatea Ezker Abertzaleak nahi duelako edo, izenak aldatzen dituela, ez. Orain hemen agertzen dira nahi duten izenarekin eta bestea, hori gaur hemen entzun behar izatea, harrigarria gutxienez iruditzen zait.

Gero bai komentatu dezue, mozio bat aurkeztu duzuela, oso mozio, txukuna. Irakurri eta harritu egin nintzen. Ostras, onartzeko moduko mozioa da eta egiten diren afirmazioak, bueno, kostatuko zaigu berriro ere horrelako afirmazio batzuk PNVren aldetik entzutea. Baino mozio horren txukuntasunak neri behintzat ikustearazte nauena PNV-ren bi aurpegiak, dira.

Alde batetik, abenduaren 21ean mozio bat aurkezten zaigu, non, esaten diren gauzak, harrigarriak dira PNVren hitzetan; epai hau guztiz politikoa eta funts juridiko gabekoa izan da, lehenengo egunetik azkenengora. Eta beste afirmazio batzuk egiten dira, botereen arteko banaketarik ez dagoela eta Espainiako Demokrazia gero eta ahulduagoa dagoela eta Espainian Demokrazia dagoela ere dudan jartzen da eta hori abenduaren 21ean sartu zen mozioan esaten da. Aldiz, PNVk,- eta kritika hau, PNVz gain bozkatu eta aintzat hartu zutenei egiten diet-, “Declaración conjunta en el Congreso de Madrid”, abenduaren 1ean hogeit hamar egun lehenago onartu zuen: “apoyamos y respaldamos a todas las fuerzas y cuerpos de seguridad y a todos los componentes de la Administración de Justicia en la lucha contra el terrorismo”. Hau PNVk, EA-k, Aralarrek, eta Ezker Batuak, guztiek bere egin zuten Madrilen. Hemen aspertu egiten gara matizetan, aspertu egiten gara koma bat aldatzen. Eta gero, Madrilerako joaten gara eta han herri bezala ez dugu, inongo hitzik. Han azkenean, PPK eta PSOEek ekarri zuten edo mahai gainean jarri zuten dokumentua, tragatu eta “ venga a apoyar a las fuerzas de seguridad y a la administración de Justicia”. 18/98koak atxilotzen ari zirela, oraindik atxilotzen ari zirela, PNVk aurrekontu orokorreari bere atxikimendua edo onarpena eman zien, eta aurrera atera ziren. Batzuei ez dakit zenbat kondizio, zuekin hitzegiteko, besteei aldiz... Alde batetik esaten da, ez dagoela ez botere banaketa, ez dagoela zuzenbide estatutik, baino gero beroiekin politika egiteko Madrilen, Gasteizen, Bilbon, Diputazioetan ez dago arazorik. Alde batetik esaten dute herri hau kolpatzen dutela baino beste alde batetik herri hau kolpatu ahal izaten jarraitzeko behar duten laguntza guztia ematen die. Eta gu behintzat, gure

aurpegia ez zaizue gustatuko, baino, gure aurpegia, hemen, han, leku guztietan, gaur, bihar, eta herenegun berdina daukagu eta esaten ditugun gauzak, beti berdinak dira.

EBko orezkariak Pleno aretoa uzten du.

La representante de EB se ausenta del Salón de Plenos.

MARIA EUGENIA ARRIZABALAGA ANDREA: Eta akaso, hori da, arazo honen zati haundienetariko bat. Eta zuek oraintxe aipatu duzuen aldarrikapen hori, ez dakit zehazki, baina egingo genuke bi guardia zibil ETak akabatu zituenaren hurrengo egunean edo izango zela, eta “hacer uno con las fuerzas de seguridad del estado”, ez da gelditzen oso esaldi polita nonbat zure ustez, ez behintzat. Baina bi tipo, guardia zibilak izanik ere, tirokatu eta berta akabatzen baldin badituzte, horrek dexenteko motibazioa sortarazten du, hurrengo egunean beste batzurekin dagokion foruan, nolabaiteko elkartasuna adierazi edo aldarrikapenak egiteko. Eta ni ez naiz zu bezain artista, kontradizioak aireratu eta ez dakit, zure argudioak, jarraitu edo zure bezalako argudioak botatzeko.

Esan duzuna zuek atzo, herenegun eta bihar, aurpegi berdina eta hitz berdina duzuela..., ez dakit. Denok izan ditugu azkenengo urteetan zenbait momentu itxaropentsu. Bazirudien aurpegiak eta hitzak aldatzen zirela, ez zuenak bakarrik. Zeren batzuetan denak erabatean edo bat aldatu ezkeror besteak ere aldatzen dira eta ez dakizu oso ondo nola izaten diren dinamika horiek. Kontua da orain momentuan daukagula daukaguna. Eta lehenago esaten zenuen hau ez dela ANVk aurkeztutako mozioa, - zenbaitetan liatu egiten gara hainbeste txapelekin- baizik eta dela 18/98 plataformako kideak aurkeztutakoa, nahiz eta zuek ados egon. Nik uste dut, bakoitzak garela garenak eta laga beharko geniokeela horrelako aldeak asmatzeari. Ados bagaude, ados gaude, eta ez bagaude, ez gaude, eta kitto. Eta harritzen nauena da, hau 18/98 plataformako kideek sartutako mozioa izatea, bueno harritzen nau, “en tanto en cuanto”, baina bai harritzen nau. Joan den egunean Bilbon egin zuten prentsaurreko hartan egon da dagoenean, Udaltzako ordezkari bezala baina bata EAJko zenbait beste ordezkari legebiltzarkide eta kiderekin ere, elkartasuna adierazten eta han esandakoak txalotzen, eta klaro aurretik lehendikan ere bageneuzkan entzun da, orain atzetik hau etortzen zaizu, eta zuk esango duzu beti aurpegi berdina mantentzen duzuela, eta nik esaten dizut ezetz. Lekuko, azken egunetakoa.

ALKATE-LEHENDAKARIA: Andoni ANV ? Ezer ez. PSOE ? Ezer ez. ARALAR ? Ezer ez. Bozkatzera pasako gara.

ERABAKI ZATIA

PARTE RESOLUTIVA

ANV-REN MOZIOA:EUSKAL HERRIAREN ESKUBIDEEN ALDE, EGITASMO POLITIKO GUZTIEI AUKERA DEMOKRATIKOA, HERRI GISA ERANTZUTEKO GARAIA DA.

MOCION ANV:A FAVOR DE LOS DERECHOS DE EUSKAL HERRIA, CONDICIONES DEMOCRATICAS PARA TODOS LOS PROYECTOS POLITICOS, ES HORA DE RESPONDER COMO PUEBLO.

Aldeko botuak: 3 (ANV)

Aurkako botuak : 6 (4 EAJ eta 2 PSOE)

Abstentzioak: 3 (2 EA eta 1 Aralar)

Votos a favor: 3 (ANV)

Votos en contra: 6 (4 PNV y 2 PSOE)

Abstenciones: 3 (2 EA y 1 Aralar)

ERABAKI DA:

SE ACUERDA:

ANV-REN MOZIOA:EUSKAL HERRIAREN ESKUBIDEEN ALDE, EGITASMO POLITIKO GUZTIEI AUKERA DEMOKRATIKOA, HERRI GISA ERANTZUTEKO GARAIA DA, mozioa ez onartzea.

No se aprueba la moción presentada por ANV A FAVOR DE LOS DERECHOS DE EUSKAL HERRIA, CONDICIONES DEMOCRATICAS PARA TODOS LOS PROYECTOS POLITICOS, ES HORA DE RESPONDER COMO PUEBLO.

PSOeko zinegotziaren eskariz Idazkariak bozketaren emaitzak aldarrikatzen ditu.

A solicitud del concejal del PSOE, la Secretaria, proclama el resultado de la votación.

5.3.-EAJ-PNV: 18/98 PROZESUA ETA EPAIA.

5.3.- MOCION PNV:PROCESO Y SENTENCIA 18/98.

MARIA EUGENIA ARRIZABALAGA ANDREA:

Audientzía Nazionalak orain dela 9 urte hasitako epaiaren emaitza deitoragarria izan da, 18/98 makrosumarioan auzipetuak zeuden 52 lagunetik 47ri 4 urtetik 24ra bitarteko kartzela zigorrak ezarri zaizkie; guztira 525 urtetik gorako espetxe zigorra.

Epai hau guztiz politikoa eta funts juridikorik gabekoa izan da lehenengo egunetik azkenekora. Argi eta garbi geratu da Espainian botereen arteko

banaketa eta justiziaren independentzia ez direla demokrazia heldu batekin bateragarriak.

Epai honek argi utzi du “dena ETA dela” lelopean ideiak kriminalizatu egiten dituela Espainiako justiziak. Gainera, erabat salagarria iruditzen zaigu prozesuan egin den akusazioen kotektibizazioa eta ideien jazarpena. 18/98ko epaia iraingarria da demokrazia batentzat, are gehiago XXI, mendean . Euskal Herriko sentsibilitate politiko baten kontra eta, beraz, Euskal Herriko gizartearen kontra egiten dituen erasoek etengabe murriztu eta ahultzen dute Espainiako demokrazia eta Zuzenbide Estatua.

Gure desadostasun osoa erakutsi nahi diogu salbuespeneko politikan oinarritutako ekimen judizialei; alderdien legeari, ilegalizazioei, atxiloketei eta makrosumarioei.

Ekintza hauek demokraziaren kontrakoak eta eskubideen urraketa garbia direlako.

Hau guztiarengatik, egoki deritzogu Zumaiako Udalbatzak bidegabekeri hauek salatzea eta demokrazia eta ideia guztien defentsarekin bat egitea.

Beraz, Proposamena da:

- 1.- Zumaiako Udalbatzak gogor salatzen du 18/98 makrosumarioko epaia eta ezarritako zigorrak, izaera guztiz politikoa dutelako.
- 2.- Bidegabekeria honen aurrean, Zumaiako Udalbatzak kondenatuekiko elkartasun osoa adierazten du,
- 3.- Zumaiako Udalbatzak 18/98 epaia deitoratzen du eta jarritako espetxe zigorrak bertan behera uztea eskatzen du.

ALKATE-LEHENDAKARIA: Zuk, Andoni, zerbait esan nahi duzu? ANV.

ANDONI ETXANIZ JNA: Lehen esan dudana bezala, irakurri eta egokia eta guzti iruditu zaigulakoan nago. Kontua da hitz hutsak ikusten ditugula momentuz. Baina bueno gustatuko litzaiguke hemendik aurrera hitz huts hauek ekintzetan ere islatuko balira, eta islatzen badira esango dugu bai egin duzue zerbait honen aurrean, hartu duzue konpromisoren bat eta landu duzue epaiketa honek sortu dituen injustiziak ekiditeko zerbait. Baina ordurarte guri behintzat hitz hutsak iruditzen zaizkigunez abstenitu egingo gara.

ERABAKI ZATIA

PARTE RESOLUTIVA

EAJ-PNV:18/98 PROZESUA ETA EPAIA

Aldeko botuak: 7 (4 EAJ, 2 EA eta 1 Aralar)

Aurkako botuak : 2 (PSOE)

Abstentzioak: 3 (ANV)

ERABAKI DA:

EAJ-PNVk aurkeztutako,18/98 PROZESUA ETA EPAIA mozioa onartzea.

MOCION PNV: PROCESO Y SENTENCIA 18/18

Votos a favor: 7 (4 PNV, 2 EA y 1

Aralar)

Votos en contra: 2 (2 PSOE)

Abstenciones: 3 (ANV)

SE ACUERDA:

Aprobar la moción presentada por el PNV, PROCESO Y SENTENCIA 18/18

PSOEko zinegotziaren eskariz Idazkariak bozketaren emaitzak aldarrikatzen ditu.

A solicitud del concejal del PSOE, la Secretaria, proclama el resultado de la votación.

ALKATE-LEHENDAKARIA: Hau aprobatuta, Miren ez dakidana da bi mozio onartzekotan eta onartuko balirake, honen inguruan zein den onartzen dena.

IDAZKARIA: Onartzen dira biak, se aprueban las dos.

5.4.-EA:18/98 PROZESUA ETA EPAIA.

5.4.-MOCION EA: PROCESO Y SENTENCIA 18/98.

ALKATE-LEHENDAKARIA: Zerbait M. Eugenia, PNV aldetik, Eusko Alkartasunaren mozioaren inguruan?

M. EUGENIA ARRIZABALAGA ANDREA: Ez duzu irakurri behar?

ALKATE-LEHENDAKARIA: Ez irakurri dugu batzordean. Ez dut gehiago luzatu nahi eta.

MARIA EUGENIA ARRIZABALAGA ANDREA: Gure aldeko botua.

ALKATE-LEHENDAKARIA: PSOEek, kontrako botua, suposatzen dut.

SR. EMILIANO CABAÑAS: Que bien que se pueden aprobar todas. Lo que pasa que hay puntos que son contrarios y bastante diferentes. Entonces me gustaría saber realmente si se va a presentar en algún sitio, se va hacer el ejercicio de cual vá a ser de las dos, o va a ser una mezcla de las dos.

ALKATE-LEHENDAKARIA: Precisamente por eso le preguntaba a Miren.

SR.EMILIANO CABAÑAS: Que se pueden aprobar, estoy de acuerdo con ella, pero que van a hacer el mismo recorrido las dos, teniendo puntos que son muy diferentes.

MARIA EUGENIA ARRIZABALAGA: ¿ Cúales son las diferencias? ó ¿Cúales son las incompatibilidades? Porque diferentes sí que son, pero ¿son incompatibles?

SR. EMILIANO CABAÑAS: No, diferentes. No he dicho incompatibles, diferentes y creo que en la diferencia, a veces pues sutilmente se pueden entrever bastantes más cosas.

ALKATE-LEHENDAKARIA: ¿Se aprueban las dos, no? Se aprueban las dos.

ERABAKI ZATIA

EA:18/98 PROZESUA ETA EPAIA

Aldeko botuak: 7 (4 EAJ, 2 EA eta 1

Aralar)

Aurkako botuak : 2 (PSOE)

Abstentzioak: 3 (ANV)

PARTE RESOLUTIVA

MOCION EA: PROCESO Y SENTENCIA
18/18

Votos a favor: 7 (4 PNV, 2 EA y 1

Aralar)

Votos en contra: 2 (2 PSOE)

Abstenciones: 3 (ANV)

ERABAKI DA:

EAk aurkeztutako,18/98 PROZESUA ETA
EPAIA mozioa onartzea.

SE ACUERDA:

Aprobar la moción presentada por EA ,
PROCESO Y SENTENCIA 18/18

ANDONI ETXANIZ JNA: Gu hemen berriro abstenitu egingo gara. PNVren mozioak harritu gaituen bezala, redakzio egokia izaterainoko harridura, hemen aldiz ez gaituzue harritu, benetan nahiko mozio pobrea iruditu zaigu. Gaiari zeharka heltzen zaio, baino azkenean betiko diskurtso ustel eta nola esaten da, antzuan erortzeko arrisku gehiago ikusten dut mozio honetan. Benetan 18/98ko kideei elkartasuna espresatzea baino gehiago beste edozer.

ALKATE-LEHENDAKARIA: Eztabaida luzatu egingo da baina, bakarrik Andoni, zuen mozioaren osagarri izateko aurkeztu dela esa. Lehen adierazi dudana bezala behin ondorioeztatzen baldin bada gatazka politiko baten aurrean aurkitzen garela, irakurketa hori egiterakoan, gatazka politikoaren irakurketa egiterakoan iruditzen zitzaigulako antzua edo geratzen zela oraindikan ere bere osotasun bat behar zuela gatazka politikoak ondorio asko dituelako eta zuena osatzeagatik sartutako mozio bat izan da. Hala eta guztiz ere denok dakigu herri honetan bakoitzak nola eta zer jarrera dituen eta isladatu nahi izan dugu bakoitzak duen jarrera eta horrelaxe isladatzen da.

Besterik gabe, amaitutzat ematen da.

MARIA EUGENIA ARRIZABALAGA ANDREA: Ez barkatu, Eskari Galderak.

6.-ESKARI-GALDERAK:

6.-RUEGOS Y PREGUNTAS:

ALKATE-LEHENDAKARIA: Barkatu bai, galderarik ?

MARIA EUGENIA ARRIZABALAGA ANDREA: Guk galderatxo bat, eta gero, komentario bat dauzkagu.

Galdera oso zehatza da, zergatik ez da gaurko pleno honetara ekarri Odieta-Eusebio Gurrutxagako fitxa aldaketaren behin betiko onarpena? Orain dela bi edo hiru hirigintza batzordetik pasa zen, diktamena onartu, eta onartu ez ezik, ANV , EA eta geure botuekin onartu baldin bazen?

ALKATE-LEHENDAKARIA: Ez da ekarri datorren plenorako ekartzea proposatu dugulako. Dakizun bezala, Alkateak du aukera noiz ekartzekoa eta erabaki da datorren plenora ekartzea.

MARIA EUGENIA ARRIZABALAGA ANDREA: Besterik gabe; eta ondoren, komentariotxo bat laburki. Andoni hainbeste harritu ez zaituen kontu bat irakurri nahiko genuke. Mozio asko tratatu ditugu gaur, gehienak 18/98 makrosumarioaren aurkakoak, horietako bat eta ez bairik gabekoa geuk sartutakoa. Baina ezin gara ahaztu azken bolada honetan gertatutako beste zenbait konturekin ere, horien inguruan mozioak sartzeko gogoz geratu gara. Hala nola abenduaren batean Capbreton-en izandako atentatuari buruz, non bi guardia zibil hil zituen ETAk Fernando Trapero eta Raul Centeno. Hala nola, Sestaoko bake epaitegiaren aurkako atentatua abenduaren 16an. Hala nola gabon gauean Balmasedako Casa del Puebloaren aurka ETAk egindako leherketa. Jaurlaritzako bozeramaileak esan zuen bezala, nazka ematen digute, hori da gure sentimendua, nazka, eta ez gara kondenatu, ez kondenatu jokoan sartu, inori ez diogu eskatzen kondenaren aldeko edo aurkako botorik. EAJko zinegotziok nazka sentitzen dugula esan besterik ez dugu nahi eta lehendakariarekin bat gatzela esan nahi dugu. Bat bere hitzekin, eta bat bere konpromisuarekin. Hau da, Lehendakariak iragartzen digun etorkizuna, indarkeriarik gabeko etorkizuna, non alderdi politikoek elkarrizketaren bidea zabaltzeko eta adostasunaren bidea jorratzeko mandatua izango duten eta Euskal Gizartea bere geroaren jabe izango den. Guztion partehartze demokratikoan oinarritutako etorkizuna, erabakitzeko etorkizuna, eta horixe zen argitu nahi genuena.

ANDONI ETXANIZ JNA: Nik behintzat erantzun bat edo komentario bat. Azkenengo aste, hilabete, egunetan gertaturikoak ekarri nahi izan ditu PNVk mahai gainera. Eta nik hori konpletatu egin nahiko nuke. Ez dut esan nahi, ekarri dituenak ekarri behar ez zirenik, baino horrelako bizio selektibo edo infrarojo selektibo batekin ikusi ditu, ikusi nahi zituenak eta ikusi nahi ez zituenak ez ditu ikusi eta zoritxarrez, zoritxarrez diogu aste honetan ere mahai gainean zoritxarrez hildako bat daukagulako. Zoritxarrez politika zehatz batzuk erakarri edo generaturiko hildako bat daukagu mahai

ganean. Natividad Junko deitzen den Andrea. Bere delittoa, bere famili artean Segiko kide bat edukitzea. Eta Segiko kidea izateagatik Gorka Lupiainizeei egin ziotenak egin da ziur asko eta agian ez duzue jakingo zein den Gorka Lupiainiz baino nazka pasa nahi badezute, irakurri zer egin dioten Gorka Lupiainizeri, abenduaren 6an, hortaz ere ez zarete akordatu. Segiko kide honi ere seguraski, Gorkari egin dizkioten gauza guzti hauek egin da kartzelan sartu dute. 500 km.tara eraman dute, eta bere senitartekoak bidean geratu dira. Horiekin ez gara akordatu. Beste hildako batzuk beti bor..bor.. daude, beste batzuk segituan enterratzen ditugu. Guztien memoria nahi nuke, nik behintzat ez nuke ezberdin egin nahi eta batzuk ekarri direnez, nik ere beste nazka emateko moduko ekintza batzuk ekarri ditut.

ALKATE-LEHENDAKARIA: Honen inguruan, bai barkatu Emiliano, orain emango dizut hitza, te doy ahora la palabra.

Honen inguruan ere itxuraz Zumaian izan zen orain dela hilabete bat izango zen, itxura eta zentzu guztien arabera sabotai politiko bat bariantea edo saihezbidea egiten ari den enpresa bati. Sabotaia azken finean eta sabotai horren aurka ere nahi dut garbi adieraztea, noski Alkate honen gaitzespen handiena eta hala baldin bada eta ez baldin bada ere noski gaitzespena, “gamberrada” baldin bada ere, gaitzespenik handiena. Emiliano.

SR.EMILIANO CABAÑAS: Si es que creí que no me habías visto, porque te tocaba nada más, no porque me dieras la palabra.

La verdad es que no merecía la pena intervenir, pero después de cosas que se oyen y se dicen, pues si merece la pena. Lo que acaba de decir Andoni, - yo me acojo al dicho de que dicen en Castilla que no es más ciego el que no vé sino el que no quiere ver y cuanta verdad lleva eso consigo- pretender que el muerto, un muerto en carretera por accidente con los que hay al cabo del día, lo compare con un muerto de ETA, es, lo voy a decir claramente, es una aberración de no querer ver la realidad. Por eso digo que no es más ciego el que no vé, sino el que no quiere ver. Puede ocurrir a esa mujer, le puede ocurrir a cualquiera que se desplace por ocio, por lo que le dé la gana o por necesidad y eso no es una muerte del tipo en la cual estamos tratando del terrorismo. Que no se quiera ver el terrorismo, pues que no se quiera ver, pero que está ahí, por supuesto, y que conculca todas las libertades de aquellos que no piensan como ellos, también y que les importa un bledo la gente, también, y lo demuestra incluso la última bomba, no solamente va contra la Casa del Pueblo, sino contra todos los vecinos, importa? No. Con luego decir que lo siento, se acabó el problema. Igual que los curas absolución y vuelve a pecar que no hay problema. Si eso es lo que se

pretende y lo que se quiere vender o si lo que se quiere es que se llegue a acuerdos, ya lo ha dicho antes M. Eugenia, hemos estado en un debate abierto con unas posibilidades inmensas, se ha aceptado? No, no se acepta. Porque no, porque solamente hay una trágala, o esto o nada, y eso no es una negociación, eso pura y dura es una imposición que sólo llevan a cabo dictaduras y no democracias. Con todo lo que luego se nos llena la boca de democracia. Si la democracia existiera se sienta, negocia llega acuerdos o nó, y siempre hay cesiones de una parte y de otra para poder centrar un acuerdo. Pero cuando te sientas con una postura dictatorial o esto o nada, ni es democracia, ni hay negociación, ni hay nada, luego cuando hablemos de democracia deberíamos de tener bastante más cuidado con ésa palabra, con lo que significa.

Como estamos en el tema de varios, antes ha hecho una pregunta el PNV y yo también hago otra.

Creo que en el segundo pleno después de la constitución pregunte qué iba a pasar con la revista PAOLA, se me dijo que estaba en estudio, la ley, qué estudio estais llevando a cabo, tiene que salir una finura terrible, porque llevamos ya unos cuantos meses y todavía no tenemos solución.

ALKATE-LEHENDAKARIA: Como diría aquel, en el Congreso de los Diputados, por cierto, un Diputado Socialista, ante la pregunta siempre respondía sigue en estudio, Emiliano, pues sigue en estudio y ya veremos la finura con la que sale.

Respecto de lo de la muerte del familiar del preso, que has dicho , tampoco se puede comparar la muerte de esta persona porque desde luego no iba a jugar al golf iba a ver a un familiar derivado de una política penitenciaria que en su día fue aprobada, estando vosotros en el Gobierno apoyada también por el PNV no por Eusko Alkartasuna. Y es consecuencia de aquello dicho sea de paso, no iba a jugar al golf, el familiar de un preso que estaba encarcelado por una política penitenciaria lejos de su pueblo natal.

Y respecto de lo que es la democracia, te impongo o no te impongo ó lo aceptas ó lo dejas de aceptar, simplemente te recuerdo que cuando el Lehendakari Ibarretxe fue al Congreso de los Diputados se le dijo, aquí no hay discusión, tú vienes a discutir una cosa, pero es que yo, ni te acepto ni tan siquiera la discusión, por lo tanto, la democracia y el concepto de la democracia en este país, pues deja mucho que desear, pero por muchas partes. Y habrá que discutir precisamente sobre el conflicto porque todo es parte de ese conflicto que me refería yo antes, y hay que discutir sobre todo y cada cual en su rango. Pero eso también es muy grave decirle al representante legítimo de Euskadi no se acepta tu propuesta pero ni tan siquiera para la discusión, eso es muy grave también, simplemente.

SR. EMILIANO CABAÑAS: Simplemente por matizar, por supuesto que queda claro que no es comparable. No hace mucho ha ocurrido que iban a una boda y han muerto luego después a la vuelta familiares. Es un accidente, culpa de qué, de que vivían los familiares fuera de donde estaban los otros donde se iban a casar, no, es un accidente. No hace mucho también han asistido a un funeral y luego ha habido que enterrar al resto de familiares, ha sido en Galicia, porque se han pegado un golpe y se han matado en un accidente, es culpa de que el otro muerto estuviera en otro lugar? no, es un accidente y como tal hay que tratarlo.

ANDONI ETXANIZ JNA: Nik hau ez dakit zinismo eragiketa bat den edo zer den, baino nire ustez behintzat ez da konparagarria astero-astero karreteran jarri behar diren ehundaka pertsonen egoerak eta bodetan eta ez dakit zer, beste ekintzetan, bidean gelditzen direnekin. Astero-astero milaka eta milaka kilometro egin behar dituzte herri honetako senideak. Senideei kondena paraleloak jartzen zaizkie eta berrogei minutu egoteko hamaika ordu egin behar dituzte mila kilometro joanean eta mila kilometro etorrian. Nik zuri behintzat zure konbikzioak eta desgraziak mahai gainean jartzen dituzunean, nik behintzat zinikoki ez dut erantzuten eta niri iruditu zait gaur zinismo puntu bat ere eduki duzula eta ideiak ezberdinak eduki genitzazke, baina ni behintzat errespetoarekin hitzegingo dut, zeren jakin badakit alde guztietan sufrimendua dagoela. Zuk dirudienez, alde bakarrean sufrimentua dagoela errekonozitzeko prest zaude, ni bi aldetako sufrimendua errekonozituko dut, hemen eta leku guztietan, baino zinismoa faborez, horrelako gai serioetan, ate horretatik kanpo.

MARIA EUGENIA ARRIZABALAGA ANDREA: Barkatu eta bukatzeko, zinismorik gabe, inolako zinismorik gabe eta errespeto osoz, akaso Emilianok jarri dituen adibideak ez dira paregarriak, ez? Baina egongo litzateke adibide bat, “Dios no lo quiera Paloma”, antzekoa izan zitekeena eta da Paloma Heredero Negrodo etortzen zaigunean Mostolestik Zumaiara, hilean behin bada ere, horrelako zerbait gertatuko balitzaio. Akaso horren arrazoi azkena ere izango zen, egunen batetan ETAk zinegotzi Sozialisten aurka atentatuak egiteari ekin ziolako eta horren ondorioz zinegotzi Sozialistak herri honetan lortzeko, nahiko zaila seguruenik izango delako eta hori sinistu dezaket eta horren azken ondorio ba.. bera etorri delako hemengoak nahi ez duten lekua ordezkatzera, beraz hori izan zitekeen pareko.

SR. EMILIANO CABAÑAS: Y yo también por terminar no se trata de cinismo y no retiro nada de lo que he dicho, porque no he hablado con cinismo, he hablado con la realidad. Ya me gustaría a mí, si tan traumático es, que la cantidad de muertos -no te voy a decir el número, porque lo sabes igual que yo de sobra-, pudieran ir de viaje a visitar a un familiar en la cárcel o donde estuviera, ya me gustaría.

UNAI MANZISIDOR JNA: Nik esan nahi nuke, hemen asko erabiltzen dugu eskubide hitza, niri oso logikoa iruditzen zait eta gainera pozten naiz baina eskubideak normalean atzean bete behar bat edukitzen dutela. Hemen gauden denona lehendabizi gure artean pakea bilatzea da. Horrek herrigintza egiten du, herrian, aberrigintza noiz batean ailegatuko da, nik besterik ez dut sinisten.

ALKATE-LEHENDAKARIA: Eskerrik asko. Hala eta guztiz ere Emiliano, sí quisiera , sin eternizar el debate, dejar claro una cosa a éste respecto. A veces dá la sensación cuando han pasado muchos años de que aquí al final, y no porque ahora nosotros estemos gobernando con ANV, ni mucho menos, sino por decir las cosas, las históricas, como han sido. Aquí ha habido de todo y aquí han existido los GAL, cosa que está sin resolver y en la mente todos subliminalmente. Esto es un pueblo pequeño y sabemos muchas cosas y ha existido el Batallón Vasco Español y han existido los GAL y ahí están Lasa y Zabala y ahí están todos los demás. Quiero decir nadie se tiene que poner por encima de nadie, porque aquí todos tenemos que dar cuenta sobre todo. A ése respecto digo que es evidente, actualmente qué cosas pasan y las cosas que pasen y que vayan en contra de los derechos humanos, son totalmente condenables, abominables, etc.. Pero que hay que tener muy presente la historia y lo que el conflicto en sí representa. Aquí algunos recordamos cuando en el Congreso de los Diputados, el que hoy es consejero Azkarraga, decía por cierto en la soledad, porque nadie le acompañaba decía aquello y recordaba el caso de Zabalza, de Lasa, y de Zabala. Allí de los ministros competentes no recibía ninguna contestación, y además le acusaban, bueno, El Mundo, en su época, además en sus inicios era bombante. Le acusaban de ser bastante pelma, y claro pelma, ser pelma, con la conculcación de un derecho humano no es ser pelma, es decir, que todos los derechos humanos, los conculque quien los conculque, más si es que las ha conculcado el Estado de derecho, más si cabe, hay que denunciarlas. Paloma.

SRA.PALOMA HEREDERO: Me encanta, estoy perfectamente de acuerdo, con esto que acabas de decir de que la historia no hay que olvidarla, efectivamente, la historia no hay que olvidarla, pero sobre todo para no repetir aquellos errores que se han cometido. La historia no hay que olvidarla nunca, pero tampoco nos podemos regocijar en aquellas partes de la historia que nos son favorables, porque en este momento nos gustan, vale? Bien entonces una vez dicho que sí que estoy de acuerdo en lo de la historia para no repetir aquellos errores, a mí hay otra cosa que también me ha gustado escuchar, y es que has dicho que todos aquellos atentados contra la humanidad hay que condenarlos. Me gustaría que eso realmente fuese así. Primero me gustaría que no se produjeran, evidentemente, pero una vez que esto se produce, lamentablemente, a mí me encantaría que todo el mundo condenase esto y que todos estuviésemos de acuerdo en la condena y en la repulsa de todo esto y además en ver la solución más inmediata para conseguir la solución más inmediata o sino inmediata, por lo menos conseguir la solución, para que no se volviera a repetir. Lamentablemente estamos en ésa situación, ahora mismo, no todos condenamos y repudiamos todas aquellas tropelías y en todas aquellas aberraciones que se cometen contra la humanidad. Vale? Estoy de acuerdo también con lo que acaba de decir el concejal del PNV. Me encanta. Ojalá todos tuviésemos, tu ilusión y tus ganas de hacer cosas en positivo que seguro que tienes sobre todo dada tu edad. Yo creo que deberíamos de ser capaces por supuesto entre todos de poder llegar a acuerdos para solucionar este gran conflicto que tenemos. Hoy, ha sido muy lamentable ver todas las mociones, por lo menos para mí y hablo por mí en este momento, las mociones que hemos tenido todas encima de la mesa y sobre todo el ver que no hemos sido capaces de llegar ni siquiera a hacer una moción conjunta, es decir, hemos votado se han votado dos mociones que se han aprobado ni más ni menos que por nuestra incapacidad nos duela o no nos duela, pero si así debido a nuestra incapacidad de llegar a hacer una moción conjunta y Gracias.

Un momentito no os vayais, os quiero dar una felicitación navideña. Supongo que las tarjetas de visita que os pedí en el mes de Octubre, no estarán.

Eta eztabaidatzeko beste No habiendo más temas que tratar, gairik ez dagoenez Alkate- el Alcalde-Presidente da por Lehendakariak bilera amaitutzat finalizada la sesión cuando son las ematen du gaueko hamarrak hamar veintiuna horas y cincuenta minutu gutxi direnean eta nik minutos, y yo la Secretaria doy fe. Idazkariak fede ematen dut.

ALKATEAREN O.E

IDAZKARIAK

